

1. Erdi Aroko Filosofia

Aro berriko filosofia arakatu baino lehen, garrantzitsua da Erdi Aroko filosofiaren laburpen bat argi izatea, bertan planteatzen diren ideiak eta arazoak hurrengo urteetako historian ezinbestekoak izango dira eta.

1.1. Patristika (325-476).

Patristika filosofia eta kristautasuna lotzen zuen lehendabiziko korrante filosofikoa izan zen, erlijio honen ofizializazioaren ondoren bere legitimazioaz arduratzen zena. Filosofia honen helburua, beraz, Kristautasuna erlijio zuzen eta zentzuduna zelaren justifikazioa zen, egitura filosofiko batetaz baliatuz. Jainkoaren auziaren “aitzakiarekin” beste hainbat gai lantzen ziren, garaiko kezkei erantzunez:

1. Arrazoia eta fedearen erlazioa.
2. Jainkoaren definizioa, teologia positibo eta negatiboak.
3. Kreazioa eta ezerezetiko sorrera.
4. Jainkoaren eta gizakiaren arteko erdutza erlazioa.

Kontestu honetan autorerik garrantzitsuenak Agustin Hiponakoa izan zen. Autore honek, Erromako gainbehera ikusita, Jainkoaren Hiriaren existentzia eta justizia defendatu zuen *Civitas Dei* lanean, lasaitasuna eta Kristautasunaren garaipenaren idea nagusitzeko. Are gehiago, “credo ut intelligum” (sinesten dut jakintzeko) ideia defendatu zuen, jakintza zientifikoaren baita orokorraren kontestuan ere.

1.2. Eskolastika (800-1285).

Filosofia mota honen hasiera Karlo Magnoren inperioan kokatzen da, Frankoen (ez Frantziarren) burua zena. Garai honetan Europan inperioen nagusitasuna eman zen, Aita Santuaren eskuhartzearekin zerikusi handia zutenak, haien artean, Germaniako Erromatar Inperio Santua (pre- eta supra-nazionalak).

Canterburyko Anselmo (1033-1109) eskolastikako autorerik garrantzitsua, disziplina honen aira kontsideratzen dena. Pentsalari benediktarrak “fides quaerens intellectum” defendatu zuen Agustinen jarraipen gisa, hau da, arrazoia bilatzen duen fedearena. Tomas Akinokoa (1224-1274) eskolastikako beste autore garrantzitsuenetarikoa da, dominikoa izandakoa, Aristotelesen filosofia Kristautasunari aplikatu zion lehendabizikoa. Bere ideala “philosophia ancilla theologiae” da, hau da, filosofia teologiaren esklabua delaren ideala. Aristotelesek bezala, berak filosofia sistemizatu zuen teologiaren barnean, dominikoen *egiaren bilaketaren* kontestuan ulertu behar dena.

Tomismoak fedea sistemizatu bazuen ere, bere ideiek ez zuten fedearekin zerikusia duten erronka filosofiko denen erantzuna suposatu. Bere kritikoez gehien kuestionatzen duten esparrua arrazoiarena eta fedearena da, *arrazoitutako fedearen* aurka agertzen ziren eta. Kontestu honetan hainbat autore aipatu daitezke:

1. Sigen Bravantekoa (1235-1284), Averroesen eta kritiko arabiarren planteamendua latinez landu zuelako da garrantzitsua.
2. Eckanthe maisua (1260-1327), Jainkoaren izate ikuspegi omnistiko batetatik: Jainkoak izatea da, ez du izaterik. Ez dago Tomasen arrazoiarekin kezkatuta, ez zaio Jainkoarekiko errebantea iruditzen.
3. Duns Eskoto (1266-1308), esperientziaren, behaketaren eta zientziaren garrantzia defendatuko du, baita kristuatasunaren dogmek horrekiko duen distantzia ere. Bere hitzetan: “kristau dogmak ezin dira arrazoiaren oinarritu”.

Eskolastikaren amaiera ulertzeko Guillermo Ockhamgoa dugu, autore Frantziskotarra. Guillermo berrikuntzaz aritu zen lehenengo pentsalaria izan zen, bide moderno bat defendatuz, bere garaiko dekadentziaren aurrean. Eskotok bezala, esperientzia eta behaketa defendatuko ditu, Humek geroago egingo duen bezala. Modu teologikoan argudiatuko du gizakiak ez duela Jainkoa edo *kosmosa* arrazionalki frogatzeko gaitasun intelektualik, hau ahalguztiduna baita. Jainkoa handiegia da, boteretsuegia da, gure arrazoimenaren esplikazioan sartu ahal izateko.

2. Errenazimendua

Berpizkunde garaian Erdi Aro aurretik galdutako denbora bat berreskuratu nahiko da, zehazki, Aro Klasikoko idealein materializatu zena. Garai honetan, klabe historiko ugariaren ondorioz, fedearen eta arrazoiaren arteko erlazioa bir-imaginatzeko beharra sortu zen, paradigma sinboliko baten alde eginez.

- *Nikolas Cusakoa*. Nikolas Cusakoak *de docta ignorantia* printzipioaren bidez Socratesen ideal klasikoa berpiztu zuen. Berak, eta beste askok, Jainkoaren eta fedearen kontzeptua zabaldu edo *estiratu* zuten, gizakiaren alde sinbologikoa biltzeko eta batasun zientifikoaren edo separazioaren doktrinak ukatzeko. Bere garrantziak hurrengo kontzeptuetan datza: Nikolas Cusakoaren eragina ezinbestekoa da, Berpizkundeko ideia askoren oinarria izan baitzen. Latinez idatzi bazuen ere, filosofia alemandarraren tradizioaren hasiera kontsideratu izan da.

1. Ezagutza mailen definizioa: *sensus, ratio, intellectus*.
2. “*Coincidentis oppositarum*”. Kontrako kontzeptuen arteko lotura jainkotarra.
3. Kosmologia berri bat: infinitoa. Gizakia ulertzeko modu berri bat.

2.1. Humanismoa eta Filosofia Italiarra

Berpizkundeko garaian humanismoa eta horren ondoreko filosofia jaio ziren Italian, non estatu bateratu baten nozioa oraindik nahasia zen, eta non filosofia gehien bat literaturaren bidez agertzen zen. Garai honetan Zizeron (k. a. 106-43) bihurtu zen filosofiaren eta kulturaren eredu, garaiko autore garrantzitsuenentzako gutxienez: Dante, Petrarka... Hari horretatik, humanismoaren eta aniztasunaren ideiak ezinbestekoak bihurtu ziren: “el humanista es el que se interesa por la cultura y muestra una actitud abierta hacia otras ideas y pueblos”. Garai hau nahasia izan zen, trantsizio eta aldaketa azkar ugari eman ziren eta, bai eguneroko bizitzan (brujularen adibidea) baita kosmobisioan ere (gizaki unibertsalaren ideia).

Berpizkundearen eta korrante kultural berri hauen hasiera Italian kokatu izana ez da kasualitatea, garaiko faktore historikoen menpekoea baizik. Alde batetik, Italiar batuaren hasiera garai honetan kokatzen da, Danteren eskutik, gehien bat literaturaren bidez. Gainera, Italiaren egiturak berak kompetentzia kulturalaren grina piztu zuen, herrialdea sortzen zuten

hiri txikien arteko gatazkak nagusiak zirelako, gehien bat Erromaren eta Florentziaren kasuan. Testuinguru honetan, Medici familiak Florentziako Akademia Platonikoa fundatu zuen 1459an, gero landuko ditugun Cisma eta Kontseiluen garai berean. Unibertsitate edo akademia honen helburua jauntxoek eta haien semeen artean filosofia zabaltzea izan zen, hau da, Kristautasunaren, Aristotelesen eta Platonismoaren arteko lotura egitea. Irakasle garrantzitsuenak: Plethon, Bessarion, Marsilio Ficino... Garai honetako autore garrantzitsuenak:

1. Pico de Mirandola (1467-1494). Garaiko berrikuntzei dagokienez autore garrantzitsuenetakoa, gizaki unibertsalaren ideia landu zuena. Dogmaren eskema askatasunaren alde apurtu: gizakia animalia eta aingerua da, animalia gisa infernura joan ahal da eta aingeru gisa zerura joan ahal da. Aukeramenaren bidez (libre albedío) ongia edo gaizkia aukeratu dezakegu, “tendrás la función que quieras y te haré el centro del universo para que puedas decidir.”
2. Giordano Bruno (1548-1600). Berpizkundeko azkenengo autorea, naturaren kontzeptio berri bat proposatu zuen natura filosofiko baten alde. Ikuspegi mekaniko-zientifikoa alde batera utzi eta izaki bizidunen inter-erlazioa defendatu zuen, natura organismo gisa. Esan izan da panteismo modernoaren aita dela.

2.2. Teoria politikoa

Berpizkundeko urteetan feudalismotik absolutismorako jauzia eman zen, eta beraz, politika ulertzeko eta praktikatzeko paradigma berrien beharra sortu zen, gizarte aldakor bati egokituko zena. Testuinguru honetan Makiavelo (1469-1527) dugu, Florentzian Medici familiaren inguruan ibilitakoa, teoria politikoaren aita kontsideratu izan dena. Bere *Printzipia* lanean politika instituzio gisa plantetu zuen, moraletik guztiz aldentuta: ikuspegi *makiavelikoaren* arabera, etikak eta politika praktikoa ez dute loturarik (“*el bueno perecerá ante el poder*”). Makiaveloren eredua jarraituz beste hainbat autore aipatu daitezke, teoria politikorako garrantzitsuak izan diren planteamenduak egin dituztenak:

1. *Jean Bodin* (1530-1596). “*Los 6 libros de la República*” lanean subiranotasunaren kontzeptua landu zuen, *república* estatu absolutista gisa ulertuz oraindik ere.

2. *Johan Althusius* (1557-1638), herriaren subiranotasunaren defentsa egin zuen lehen aldiz: *asi como el padre es la causa del hijo, el pueblo es la causa del rey*. Honengatik, Althusiusek defendatuko du herrriak erregearen boteria berreskuratu ahal duela. Ideia honen arazoa *herriaren* kontzeptua definitzea izango da, bere testuinguru Alemandarra ezin baita beste protonazioetara aplikatu.
3. *Hugo Gratius* (1583-1645). Erbereetako kontestuan zuzenbide naturalaren teoria proposatu zuen, politikaren printzipio nagusi gisa.

2.3. Erreforma erlijiosoa

Berpizkundearen marko teorikoa ulertzeko ezinbestekoa den beste faktore bat erlijioaren garapena da. Hau ulertzeko, hurrengo datak ezinbestekoak dira:

- a) 1056, cisma edo banaketa erlijiosoa, ortodoxoen eta katolikoen arteko separazioa.
- b) 1309-1378, kristautasunaren banaketa bi aitasantutan: Erroma eta Avignon.

Testuinguru honetan, Martin Luterok *95 Tesiak* (1517) idatzi zituen, Aitasantuaren kristautasuna kritikatu. Bere aburuz, onartezina zen bulak saltzea Vatikanoa finantziatzeko, erlijiotasuna bitartekorik gabekoa izan behar zela defendatu zuen, bibliaren itzulpenaren garrantzia azpimarratu zuen, eta orokorrean, ezarritako elizaren gehiegikeriaren eta korrupzioaren kritika egin zuen. Luteroren ondoren, beste hainbat autoreek honen jarraipena diren beste ideia batzuk defendatu zituzten:

- *Calvino* (1509-1564). Lutero baino kritikoagoa ezarritako elizarekin, Frantziako kontestuan. Bere ideiak kapitalismoaren fundazio erlijioso gisa ulertu izan dira: gizakiak zerura edo infernura predestinatuta gaude, baina ezin dugunez Jainkoaren borondatea ezagutu, lanaren bidez gure balioa frogatu beharko dugu.
- *George Fox* (1624-1706), kuakeroen fundatzailea. Garrantzitsua gehien bat Estatu Batuetan hurrengo urte edo mendeetan.
- *Spann* (1635-1706), pietismoaren sortzailea.

(Razionalismoa: Descartes, Spinoza eta Leibniz)

Arrazionalismoa gutxi gora behera 1600 urtetik 1859 urterarte nagusitutako korrante filosofikoa da, Lenehengo eta Bigarren Modernitateetan aurkitzen dena. Ikuspuntu hau gizakiaren arrazoitzeko gaitasunetik eratorzen da, animalietatik bereizten gaituen heinean: *zoon logon* gara, hitza eta arrazoia duen animalia. Modernitatea baino lehen, arrazoioaren rola ulertzeko hiru planteamendu nagusi egon dira historian zehar:

1. *Antzinaroan*, arrazoia ongia moral eta zientifikoa lortzeko tresna gisa ulertuko da, errealitate inteligible baten baitan.
2. *Erdi Aroan*, fedearen kontzeptuaren gehiketarekin, errealitate inteligiblea ulertu ahal izateko arrazoitari mugak ezarriko zaizkio, soilik fedeak gainditu ahal dituenak. Jainkoak sortutako natura benetan *ikusteko* Jainkoa behar dugu.
3. *Aro Berrian*, arrazoia bideratzeko esperimentuak beharko dira, ontofiliatik epistemofiliarako jauziaren baitan. Ikusiko dugun bezala, subjektuaren garrantzia azpimarratuko da objektuaren inguruko jakintzaren testuinguruan.

Arrazionalismoa, beraz, metafisikartik epistemologiarakoa jauzia izango da, objektuak eta beraz errealitatea ezagutzeko subjektuaren ezinbesteko rola identifikatzen den heinean. Arrazionalismo kontinentalak hainbat berezko ezaugarri ditu, Descartesaren aritiko garatutakoak gehienak:

- *A priorizko ideiak*. Ideia finkoetan oinarritutako ardura, aldakortasunaren eta iritzien aurka. Esperienziak rol garrantzitsua du, baina beti bigarren mailan geldituko da arrazoiarekiko.
- *Sistema deduktiboa*. A priorizko ideietatik eratorri daitekeen ezagutzan oinarritu behar da jakituria, ez zentzumenen bidez jasotzen den informaziotik.
- *Matematikaren eruditik eratorritako filosofia*. Filosofiaren guztizko sistemizazioa, metafisika oinarritzat hartuta. Naturaren ikuspegi matematikoa, formula eta

zenbaketara mugatu daitekeena. Ideia honen baitan plantemendu desberdinak egongo dira: dualismoa, monismoa, pluralismoa.

Arrazionalismoaren planteamendua ulertzeko ezinbestekoa da bere kontestua aipatzea, horren harira sortzen bada ziurtasunaren beharrezkotasun irmoa. Descartesen garaia Erlijio-gerrek (1562-1598) ezaugarritzen dute, zeinaren ondorioz katolizismoaren eta protestantismoaren arteko tentsioak ezegonkortasuna orokortu zuten. Testuinguru honetan Montaignek (1533-1592) “¡que sé yo!” esaldia orokortu zuen, bi kristautasunen arteko eztabaidan prudentziaren aldarrikapena eginez. Honek Pierroismoaren (Pierron, k. a. 360-270) berpizkundera suposatu zuen, irizpideak eta demostrazioak sortzen duten zirkulo biziosoan eta Judizioaren suspensioan oinarritzen den muturreko eszeptizismoa. Garai honetan Pierre Charron (1541-1603) pentsalaria ere aipatu daiteke, zeinak tolerantzia erlijiosoa, moralaren eta elizaren banaketa, eta fideismoa planteatu zituen.

1. René Descartes (1595-1650)

Descartes familia onean jaiotakoa izan zen, eta beraz, ikasteko gaitasuna izan zuen analfabetismoa nagusi zen Frantzia batean. Berak zuzenbidea ikasi zuen, baina bizitza osoan zehar soldadu gisa lan egin zuen. Bere planteamenduaren ezaugarriengatik pertsonai deserosoa izan zen, eta Suediara joan ondoren, pulmoniaz hil zen bere jaioterritik urrun. Bere plantemenduak hiru klabe nagusi izango ditu: tradizioarekiko deskonfidantza, arrazoiarekiko konfidantza, eta egia matematikan kokatzea, zalantzarik gabeko esparrua delako.

Bere obra nagusiak *Reglas para la dirección de la mente* (1628), *Discurso del método* (1637), eta *Meditaciones metafísicas* (1641) izango dira, zeinetan hurrengo mendeetako filosofian ezinbestekoak izango diren planteamendu kartesiarrak zehazten diren.

1.1 Zalantza metodikoa eta bere ondorioak

Descartesen helburua Egia bakarra eta ziurra aurkitzea izango da. Berak *jakituria* zuhaiz bat izango balitz bezala irudikatzen du, zeinetan metafisika sustraiak izango diren, fisika enborra, eta zientza aplikatuak adarrak. Ikuspegi honen arabera, jakituria denak jatorri bera du, Egia absolutu bat, ideia ebidenteetan oinarritzen dena, hau da, argi ikusten diren

ideietan. Horretarako *metodo analitikoa* proposatuko du: “solamente hay un método científico como sólo hay una ciencia”. Metodo honek lau pausu izango ditu:

1. Dena zalantzan jartzea, ebidentea ez dena egitzat ez onartzea.
2. Arazoak zatitu, ziurtasun ebidente indibidualetara iritsi arte.
3. Ideia ebidenteen inguruan arazoa berriro eraiki.
4. Ideia ebidente edo *partikulak* enumeratu, orden matematikoan adierazi.

Ikusi daitekeenez, metodo analitikoaren helburua egia absolutua izanda, zalantza horra iristeko ezinbesteko kontzeptua da, tradizioarekiko mesfidantzatik datorrena. Descartesen arabera, aurretiko ideia denak deuseztatu behar dira, guretzak ebidenteak diren arren, posiblea delako gure zentzumenetan eragiten duen *genio maltzur* baten menpe egotea. Horregatik, zalantzak hurrengo ezaugarriak izan beharko ditu:

- a) Metodikoa, ez existentziala, soilik segurtasunera iristeko.
- b) Unibertsala, dena zalantzatu behar da, matematika barne.
- c) Teorikoa, iritziak onartu behar dira egunerekotasunean.
- d) Probisionala edo behin behinekoa, sistema aurkitu arte bakarrik.

Descartesek planteatzen duen metodoak errealitatearen kontzepzioa guztiz deseraikitzen du, eta beraz, berreraikitzerakoan ere, ondorio oso latzak ditu:


1. *Cogito ergo sum*. Norberaren existentziaren ziurtasuna ebidentea da beti, eta beraz, metodo analitikoaren arabera, egitzat hartu daiteke eta lehenengo printzipio filosofikoa kontsideratuko da. Pentsatzea norberaren izateaz kontzientzia hartzea da: *badago zerbait zalantzatzeke gai dena*.
2. *Irizpide epistemologikoa*. Egiaren irizpidea logikoa izan behar da, Egia argia eta berezia (*única*) den neurrian esperientziatik guztiz banaduta egon behar delako.
3. *Jainkoaren ideia*. Jainkoaren ideia argia eta berezia da, gure baitan aurkitu daitekeelako esperientziarik gabe. Denok badugu izaki perfektu baten ideia, ezin zaio perfekzio horri existentzia falta. Descartes pertsona kristaua bazen ere, kontuan hartu behar da razionalismoaren tradizioan Jainkoa aipatzen denean ez dela Jainko Kristau

Erromatar Apostolikoaz ari bakarrik, baizik eta substantzia goren eta sortzaile bati buruz.

4. *Fidagarritasuna munduan.* Onartzen bada munduan perfektua den Jainko bat dagoela, eta beraz Ona dela, onartu daiteke ez dagoela gure zentzuak eraldatzen dituen eta engainatzen gaituen *genio maltzurrik*, eta beraz, bakoitza bere pertzepzioaz fidatzeko gai izan beharko litzateke.

1.2. Dualismoa

Orainarte ikusi dugu Deskartesen arabera dena zalatzatu daitekeela norberaren existentzia, Jainkoa, eta Munduaren existentzia izan ezik. Puntu honetan, existentziaren definizio bat ematea ezinbestekoa izango da, eta horretarako, *substantzia* kontzeptu klasiko eskolastikoa aurkeztuko du: existitzeko ezer behar ez duena, existentziaren oinarri nagusia. Substantziak hurrengo moduan klasifikatuko ditu:



Modu honetan, errealitatea bi substantzia motetan bereizten du, hedadura duten substantzia materialak eta pentsamendua dutenak. Nitasuna, beraz, *res cogitas* den heinean, ez du materialak determinatzen ezta baldintzatzen. Teoria honen baitan dualismo antropologiko erradikal bat aurkitzen dugu. Beste alde batetik, Jainkoan sortzen dituen substantziak behin sortuak guztiz autonomoak izango dira, bi substantzia mota ezberdin dira, eta beraz berriro ere, Jainkoaren eta munduaren arteko dualismoa Deskartesen planteamenduaren oinarrian egongo da.

1.3. Deskartes en ondorengoak

- a) *Malebranche (1638-1715)*. Okasionalismoaren plantemendua, gizakiaren dualismoa azaltzeko: Jainkoak aldiro aldiro aldiro eskua hartzen duela arimaren eta gorputzaren arteko erlazioa bermatzeko.
- b) *Pascal (1623-1762)*. Deskartesekin kritikoa, hasieran berarekin liluratu bazen ere. “El corazón tiene razones que la razón no puede comprender”: bizitza ez da ezastruktura argumetatio baten barnean gertatzen, bizitza arrazioa baino handiagoa da. Historian zehar beti gertatzen da: sistematizazio baten ondoren beti sortuko dira sistema horren kontrakoak.

2. Baruch Spinoza (1632-1677)

Baruch Spinoza Holandan jaitako pentsalaria da. Bere arbasoak Espainiatik kanporatuak izan ziren Judutarrak izandakoak ziren, baina berak arazoak izan zituen bai Kristautasunarekin bai Judaismoarekin, bere planteamendu monistaren ondorioz autore probokatzailer bat izan zelako. Bere bizitza laburra izan zen, eta ez zen inoiz filosofiaz bizi izan, lente garbitzailea baizik. Bere lan nagusiak hurrengoak dira, lehenengo biak berak eta besteak posthumoak:

- 1663, *Principios de filosofía de Descartes*: Descartes en lanaren interpretazioa.
- 1670, *Tratado teológico político*: erlijioa eta politika guztiz bereiztu, anonimo.
- 1677, *Ética demostrada según el orden geométrico*: Etikaren sistema bat sortu nahiko du, postulatuak, axiomak, formulak... arabera. Lana guztiz hierarkikoa da, razionalismoaren ildotik jarraituta.

2.1. Metafisika: substantzia bakarra eta monismoa.

Spinozak substantzia bakar eta infinito baten existentzia defendatzen duen *monismoaren* lehenengo erakuslea izango da. Berarentzako, Jainkoa (edo natura bere osotasunean) substantzia bakarra izango da, zeinak pentsamendua eta extensioa bilduko dituen atributo bezala, txanpon berdinarekin bi aurpegi gisa. Horrela, errealitate dena Jainkoa

izango da, Jainkoa entitate inpersonal eta inmanente gisa ulertuta, substantzia infinito bakar bat: gorputza eta arima, gizakiak eta Jainkoa... denak bakarra izango dira zentzu zorrotzean.

Ezagutzari dagokionez, hiru maula bereiziko ditu: 1. sentsoriala, 2. arrazionala, eta 3. intuitiboa. Azken honek soilik ahalbidetuko du errealitatearen osotasunaren identifikazioa, substantzia infinituaren errekonozimendua.

2.2 Antropologia: materia eta gogamena

Ikusi dugun bezala, errealitate monistaren arabera substantzia denak modu banaezin batean lotuta egongo dira (kafea eta esnea bezala kafesne batean). Ikuspegi honen arabera, gizakia substantzia bakar disolbatu bat da, Descartesen bi substantzen konexioaren arazoa konponduz.

2.2.1. Afektoen teoria.

Spinozak bere sistemaren arabeko giza portaeraren azalpena eman nahiko du, *pasioen* mekanika bat zehaztuz: *del origen y naturaleza de los afectos*. Kasu honetan, mekanika osotasun baten barneko psikologia izango da, gizakiak lerroak eta puntuak balira bezala: lerroak puntuz eginda daude, baina puntu batek definizioz ezin du espaziorik okupatu. Printzipio orokorra *conatusa* izango da, pultsioa, inpultsoa, natura guztian antzeman daitekena, ez soilik gizakiaren portaeraren baitan. Ezagarri honek bizirauteko instinto edo joerari egiten dio erreferentzia, garatzeko joerari. Gizakiaren kasua berezia izanda, *conatusa* konszientea izango baita giza desio gisa.

Afektoen teoria honen baitan giza sentimenduak kontrako joerak izango dira, autorrealizazioarekiko aurrera edo atzerapausuak: poza eta tristezia, maitasuna eta gorrotoa...

2.2.2. Etika eta askatasuna

Spinozaren filosofiaren baitan garapen morala *conatusarekin* lotuko da: zerbait ona dela deritzogu hori desiatzen badugu, horrekiko inpultsoa sentitzen badugu, hau da, *bizirauteko prozesurako baliagarria den heinean izango da ona*. Giza

askatasunari dagokionez, gure predeterminazio naturala onartzearekin lotuko du, hau da, esango du askeak izango garela naturaren parte garela ulertzen dugun momentuan.

3. G. W. Leibniz (1646-1716)

Leibniz elite kultural baten parte kontsideratu daitekeenn autorea da, bere familiaren ogibidearen ondorioz ikasteko aukera izan zuen neurrian. Bere bizitzan zehar liburuzaina izan bazen ere, matematikan eta zientzian ere aritu zen, adibidez, kalkulo integralen obran edo Newtonen aurkako ikuspegiari islatzen dena. Bere filosofia deskribatzeko hitz garrantzitsuenak *harmonia* izango da: dena harmonia baten baitan bateratu daiteke, baita unibertsaltasuna eta indibidualtasuna ere (monadologia).

3.1. Logika

Bere intentzioa egia kalkulatzeko izango da, ikuspuntu arrazionalista batetik, baina aniztasuna eta esperientzia ere inkorporatuz. Aristotelesen “ez dago adimenean zentzumenetatik igaro ez dena” esaldia hartu eta “adimena bera baizik” gehituko dio: guk jasotako esperientzia guk lantzen eta eraikitzen dugu, hau da, esperientzia hartu eta aktiboki adimena erabiliz lantzen dugu. Gizaki bezala informazioa egituratzen dugu, kanpo estimuloetatik haratago doan gaitasun bati esker.

1. *Ezagutza*. Bi ezagutza moten arteko bereizketa: analitikoak eta *a priori*koak diren arrazoizko egiak, eta sintetikoak eta *a posteriori*koak diren gertakarizko egiak. Bereizketa hau betirako finkatuko da ezagutzaren filosofian.
2. *Harmonia*. Leibnizek esango du posible dela dena ezkontzea: razionalismoa eta enpirismoa, kausa finala eta kausa efizientea, giza askatasuna eta determinismoa... Aurkakoak diren terminoen arteko nolabaiteko lotura batean sinesten du.
3. *Substantziak*. Atomo logikoak existitzen diren bezala (materia sortzen dutenak), atomo metafisikoak ere badaudela defendatuko du Leibnizek. Substantziari dagokionez, unibertsoaren oinarrian dagoen indar edo energia aktibo gisa irudikatuko du.

3.2. Metafisika

Ikusi bezala, Leibnizentzat errealitatearen oinarria energiadun substantzia izango da, Spinozaren *conatusarekin* parekatu daitekeena.

1. *Monadak edo monadologia*. Aktibitatea oinarriaren oinarria da. Monadak ez dira elementu logiko, fiktizio edo fisikoak, elementu metafisikoak dira, metaforikoki erabiltzen ditugun sinboloak. Haien helburua errealitatearen oinarria azaltzea izango da, adibidez, argiaren metafora: kandelako argi txikiari ez zaio argia izateko ezer falta.
2. *Harmonia unibertsala*. Leibniz optimista absolutua da, sistema birtual bat eraiki nahi du, non bakoitzak bere burua aske ikusten duen programa ordenatu baten baitan.
3. *Innatismoa vs anti-innatismoa*, Leibniz vs Locke. Autore hauen joera ez zen erradikala, hau da, ez gaude borroka sutsu baten aurrean.

1. Sarrera: zer da enpirismoa?

Enpirismoaren oinarriko kontzeptua *enpiria* da, hau da, esperientzia. Jabetze sentsorialarekin lotzen da, hau da, zentzumenen bidez inguruaren ezagutza jasotzearekin, biata praktikarekin ere. Barne-esperientzian oinarritzen den egiztapena defendatuko da, onartuz, giza auzietan gauzak ez direla argiak eta zehatzak, baizik eta malguak naturaz. Auzi konplexu hau bu esparru nagusietara muga dezakegu:

- Kanpo esperientzia: esperientzia sentsoriala, enpirismo klasikoa, ezagutza.
- Barne esperientzia: *a priorizko* barne bizipenak, ulermena.

Abiapuntu honetatik, enpirismo mota desberdinak jaioko dira, printzipio orokorra esparru partikularretara aplikatuz: enpirismo psikologikoa (ezagutza dena esperientzian jaiotzen dela defendatzen duen korrante erradikala), enpirismo epistemologiko edo gnoseologikoa (frogaren garrantzia), eta enpirismo metafisikoa (errealitatea esperientziara mugatzen delaren ideia).

1.1. Historia

Enpirismoa Aro Berriarekin lotzen badugu ere, badaude *protoenpirismoaren* hainbat erakusle, zeinek esperientziaren garrantzia defendatzen zuten hau korrante bta bihurtu baino lehen. Atzinaroan Straton dugu, Aristotelesen jarraitzaile eta Lizeoaren oinordekoa izan zena, zeinak esaten zuen: “nada esta en el entendimiento que eno haya pasado por los sentidos”. Erdi Aroan, Oxfordeko eta Pariseko eskolak aipatu behar dira, Erromako kontrolari kontra eginez Platon eta Aristotelesen kausa finalen teoria zientziaren alde kritikatu zuten. Testuinguru honetan, bi autore aipa daitezke:

1. *Gorsseteste (1175-1253)*. Protoenpirista honek naturare ikerketaren matematizazioa burutu zuen, neurketan oinarrituz, zientziaren garrantzia azpimarratuz modu oso aurrerakoian.

2. *Roger Bacon (1214-1294)*. Enpirismoaren Aita kontsideratzen den autore honek aitortu zuen: “se necesita un saber metodicamente seguro y basado en la experiencia”, eta “hay cuatro principales fuentes del error: la fe ciega, la costumbre, los prejuicios de las masas y la apercencia de sabiduría donde se esconde la ignorancia”. Akats hauek gainditzeko metodo garrantzitsuena esperientzia izango da, baita Bibliaren exegesisa eta matematika.

1.2. Enpirismo britanikoaren ezaugarriak

Gaur egun enpirismo gisa ezagutzen den hori *enpirismo britanikoa* izango da, gehien bat Ingalaterran eta Eskozian eman zena Aro Berrian zehar. Testuinguru honetako autore garrantzitsuenak filosofiaren historian ezinbesteko autoreak izango dira: Locke, Berkeley, eta Hume. Hauek dira enpirismo honen ezaugarri garrantzitsuenak:

1. *Matematikatik esperientziara*. Enpiristek defendatuko dute matematikak ezin duela errealitatearen inguruan hitz egin, matematika hutsak ez duela ezer erakusten. Horrek ez du esan nahi matematika guztiz baztertuko denik, baizik eta esperientziazkoak horren gaineko garrantzia hartuko duela.
2. *Indukziotik eszeptizismora*. Esperientziazko abiaturatik eszeptizismoan erortzeko dagoen arriskua azpimarratuko dute, izan ere, demonstratu daitezkeen dena esperientziaren menpe egoteak ziurtasun eza sustatu dezakeelako. Adibide klasikoa: *esaten da zisne denak zuriak direla, baina nork ziurtatzen du ez dela inoiz zisne beltz bat agertuko?*
3. *Zientziaren garrantzia*. Zientziak eta esperientziazko garrantzi handia hartuko dute, matematikaren gainetik. Bi autoreren bidez ulertu daiteke:
 - *Newton (1642-1727)*. Matematikak kontuan hartzen zituen Newtonek, baina, nolabait ere, garrantzi gehiago emango dio behaketa, indukzio eta probabilitateari. Bere metodoa indukzioaren bidezko lege mekanikoak eratzean eta lege horiek modo deduktiboan frogatzean oinarritzen du, sintesi eta analisiak osatuz. Esan daiteke berarentzako matematika *tresna* bat izango dela, baina ezin da esan matematikak bakarrik ezagutza ekarriko duenik.

- *Thomas Hobbes (1588-1679)*. Hobbesek materialismoa defendatuko du, gorputz natural, fisiko eta artifizialak bereiziz. Hortik, indukzio eta enpirismoarekin lotutako filosofia garatzen du.

2. John Locke (1632-1704)

John Lockeren bizitza akademikoa Oxforden kokatzen da, bertan ikasi eta *greko eta erretorika* irakaslea izan baitzen, bere formazio klasiko eta humanistaren erakusle izan daitekeena. Hala ere, bere interes handia zientzian, medikuntzan, kimika eta fisikan, Descartes-en filosofian... kokatzen da, bere filosofian islatuko dena. Bere bi lan nagusiak *Giza adimenari buruzko entseiua* (1689) eta *Gobernu zibilarari buruzko bi tratatu* (1690) dira, bai enpirismoaren bai liberalismo politikoaren aitaren kontsiderazioa irabazi diotenak.

2.1. Ezagutzaren teoria


2.1.1. Innatismoaren kritika.

Ziuraski innatismoaren lehen erakuslea Platon izango da, zeinak ezagutzea *berrezagutzea* dela defendatu zuen, gure baitan jada errealitatearen inguruko berezko ideiak egon behar direlako ezagutza osoa eman ahal izateko: “el conocimiento proviene de la mente”. Agustín Hiponakoak innatismo platonikoari jarraipena emango dio, onartuz datu enpirikoak aldakorrek direla eta benetako ezagutza berez gure baitan dugun Jainkoaren argiztapenetik eratortzen dela.

Locke bera ez dago guztiz innatismoaren aurka, onartuko du gizakiak berezko elementuak dituela, zehazki, gizakiari berezkoa zaion pentsatzeko ahalmena. Lockek, beraz, onartuko du pentsatzeko eta arrazoitzeko gaitasuna dugula, baina *tabula rasaren* kontzeptuaren bidez esango du pentsamendu horrek beharrezkoa duen *materiala* beti esperientziatik eratorri behar dela. Horrela, arrazoi hutsaren kontzeptuaren gainean eraikitzen den innatismoari kritika edo “erreforma” enpirista egingo dio.

2.2.2. Esperientzia eta ideiak

Lockeren arabera ideiak esperientziatik jaiotzen dira, bai sentipenetik edo hausnarketatik: Lockeren enpirismoak, beraz, arrazionalismo puntu bat izango du. Esperientzia sentibera edo hausnarketatik ideia sinpleak jasotzen dira modu pasiboan, informazioa sartzen da gure interbenzio handirik gabe. Hortik abiatuta, gogamenak edo izpirituak modu aktiboan ideia sinpleen arteko harremanak aurkitu, garatu eta erlazioatuko ditu ideia konplexuak lortuz. Honen adibide izan daitezkeko moduen ideia, substantzien ideia, eta erlazioen ideia. Honen arabera, Lockek ez du Deskartesen *res cogitans* edo *res extensa* ideia kritikatu, esango du: guk ezin dugu substantzia ezagutu, baizik eta horren ideia. Diagrama honetan hobeto ulertu daiteke:




Lockeren planteamendua, beraz, errepresentazionalista izango da: ez da errealitatean oinarrituko, baizik eta errealitatearen ideia edo pertzepzioa.

2.2.3. Zer da ezagutza?

Lockek defendatuko du, beraz, guk ez dugula errealitatea berez ezagutzen, baizik eta errealitatearen ideiak: substantziaren ideia, gauzen ideiak... Beraz, gure ezagutza esperientziak ezagutu dezakeen pertzepziora mugatuko da. Hemendik, ezagutzaren teoriaren tradizioa eraikiko da, eta atentzioa errealitatearen nolakotasunetik gizakiaren ezagutzeko gaitasunera aldatuko da. Ezagutzari

dagokionez, hiru mota desberdin bereiziko ditu, ideiak bihurtuko direnak, haien fidagarritasun graduaren arabera antolatzen dituenak.



2.2. Filosofía praktikoa

Lockeren epistemologiaren eta filosofia praktikoen arteko harremanaren inguruan eztabaida ugari daude, ez dago argi berez lotuta badauden edo bata bestearen garapena den. Filosofia praktikolari dagokionez, enpirismoaren erakuslea den Lockek ikuspegi nahiko arrazionalista duela, kontuan izanda Descartesen eredu matematikoaren testuinguruan ematen dela.

2.2.1. Etika eta moralitatea

Lehen aipatu bezala, Descartesen eredu arrazional matematikoarekin lotzen da bere moralitatea: “la moralidad es tan susceptible de demostración como las matemáticas”. Honekin Lockek esan nahi du ideia moralak berez arketipoak direla, eta matematikaren antzera, fiktizioak direla. Matematikan egiten den bezala, berez arketipoen adostasun eta desadostasunek auzendukato sistema sortu daiteke etikaren oinarri gisa. Bere epistemologiarekin bat eginez, esan daiteke moralitatearen inguruko ideiak ditugula, ez dugula moralitatea berez ezagutzen, eta beraz, ideia horien arteko harremana izango da etika berez. Lockeren ikuspegi moralak hurrengo ezaugarriak izango ditu:

1. Hedonismoa. Ongia egiteak plazera ekarriko du, eta beraz, morala plazera edo ongizatea aurkitzearen inguruan garatu beharko da.

2. Legeak. Hiru lege mota bereiziko ditu, moralaren barruko mailak izango direnak: lege naturala (jainkozkoa, beste lege denen jatorria), lege zibila (zuzenbidearen araberakoak), eta lege filosofikoa edo soziala.

2.2.2. *Politika eta zuzenbidea*

Lockek, gero ilustrazio Frantsesak egingo duen bezala, gizakiaren berezko egoeran oinarrituko da botere politikoaren justifikazioa emateko. Bere ustez, gizakia berez lege naturala jarraitzeko predeterminatua dago, baina bere salbuespenak ere badaudenez, elkarbizitzarako arauak finkatu beharko dira askatasunez sinatutako *hitzarmen sozial* baten bidez. Bere plantemenduak, beraz, aurreuposatuko du gizakia berez askea dela, eta modu askean onartzen dituela gizartean bizitzeko behar diren legeak. Badaude landu testuinguru honetan interesgarriak diren hainbat puntu:

1. Jabetza pribatuaren aldarrikapen liberala, bakoitzak berea dena babestu beharko du. Berak esango du banakoa lanaren bidez bihurtzen dela zerbaiten jabe, dirua gizakiaren onspenaren ondorio gisa ulertuta.
2. Monarkia parlamentarioaren ideologoa izana, gehien bat boterearen banaketaren proposamenagatik. Bere hitzetan: “no es deseable que las personas que hacen las leyes las ejecuten, pues pueden eximirse o adaptar la ley a sus conveniencias”.

3. **Berkeley (1685-1753)**

George Berkeley apaiz anglikanoa izan zen, ogibide honen ondorioz mundu osoan zehar aritu izan zena Inperio Britanikoaren baitan. Oso gaztea izan zen bere obra nagusiak idatzi zituenean, 25 urte, eta beraz, esan daiteke bere *proiektu bitala* ez zela filosofia izan, baizik eta erlijiotasunaren baitan ulertzen zuen interesetako bat. Berkeley filosofiaren historiaren baitan izango duen garrantzia enpirismotik idealismoarekiko jauzian oinarrituko da, Lockeren radikalizazioa kontsideratu daitekeena. Modu orokorroan: egia bada guk errealitatearen ideiak pentsatzen ditugula, eta ez errealitatea, ezagutzen dugun dena

gogamenetik pasatuko da, eta beraz, errealitatearen plano materiala ez da existituko ezin dugulako ezagutu.

3.1. Nominalismotik inmaterialismora

Nominalismoa unibertsaltasunaren kontestuan planteatzen den konponbidea da: ez dago unibertsalik, ez dago “gauzak” baino lehen existitzen den ezer, unibertsalak antzekoak diren gauzak biltzeko erabiltzen diren hitzak baino ez dira. Filosofikoki, adieraziaren eta adierazlearen arteko harremanaren inguruko hausnarketa da. *Ikusmenaren teoria* (1709). Ikusten dugun dena gogamenean sortzen da, ez dugu berez ikusten baizik eta “pentsatzen”. Errealitatea ez da gure sentazioetatik kanpo existitzen, jasotzen dugun ezer ez da naturan existitzen. Existitzea berez hautematea izatea da, *esse est percipi*.

4. David Hume (1711-1776)

David Hume pentsalari eskoziarra izan zen, zeinak modernitatearen amaiera pentsatzeko era birpentsatu zuen. Kanten oinarrietako bat izanik. Zuzenbidea ikasi bazuen ere filosofiarako eta zientziarako zaletasuna izan zuen betidanik, eta zerbitzu diplomatikoetan aritu zen lan gisa. Saiatu zen unibertsitateko irakaslea izaten, baina bere ateo fama zela eta, behin eta berriro ukatu zioten bai Edinburgon bai beste unibertsitate batzuetan ere. Frantzian askotan aritu zen, eta bertan, autore ilustratuekin harremanetan aritu zen, zehazki, Rousseauarekin. Bere planteamenduaren baitan ildo edo asmo orokorra naturalismoa da, hau da, gizakia naturaren berezko parte dela defendatzen duen ideia. Bere lan garrantzitsuak:


- *Giza naturari buruzko tratatua*, 1739/40.
- *Ezagutzari buruzko ikerketa*, 1748.
- *Moralari buruz*, 1751.

4.1. Giza adimena edo giza ezagutza

Humeren helburua gogamenean ditugun edukiak identifikatzea izango da, gero hortik jaiotzen den ezagutza ulertu ahal izateko. Hauek hautemateak edo pertzepzioak izango dira:

zentzumenen bidez lortzen dugun zuzeneko informazioa. Pertzepzio hauen baitan (1) inpresioak eta (2) ideiak kokatuko ditu.

1. Gure gogamenean pertzepzioek uzten duten “marka”.
2. Pentsatzerakoan gogamenean ematen den inpresioen “kopia”.



Adibide bat jartzearen: nik kaletik kotxe bat hautematen dudanean inpresio bat uzten du nire gogamenean. Bihar kotxe horretaz oroitzen banaiz, kotxearen ideia ekarriko dut nire burura. Humek esango du ideia denak oinarritzko hautemate batekin konektatu behar direla kate baten bidez: esperientzian oinarritzen ez diren ideiak *sasi-ideiak* dira, baztertu beharrekoak. Egiaz aritzerakoan esperientzian oinarritu behar gara beti. Ikupegi hau ez da berria, filosofiaren historiaren baitan askotan errepikatu izan da, nabarmenki, Epikuroren (k.a. 324-271) filosofiaren baitan. Epikuroren ezagutzaren teoria *kanonikoak* esango du oinarri edo fundameto fisikoak irudiak direla, gizakietatik jario egiten dutenak eta arima materialetan *inpresioa* uzten dutenak.

Behin ezagutzaren teoria bat garatuta, Humek ideia motak bereiziko ditu: oroimenak berriz ekarritakoak (gogoratutako inpresioak) eta irudimenak landutakoak. Azken hauek oroimenezko ideiaen konbinazioak edo loturak izango lirakeke, hauek konplexuago bihurtuz. Hauek eratzeko hiru mekanismo bereiziko ditu:

- *Antzekotasuna*. Zerbait ikusterakoan bere antzekoaren ideia etortzen zaigu burura: pelikula bat ikusterakoan aktorea nire aitaren antzekoa bada, nire aitaren ideia etorriko zait burura.
- *Hurbiltasuna*. Denbora eta espazioan lotuta daudenak: nik beti elkarrekin ikusten ditudan lagunak ditut, eta bat ikusterakoan bestearen ideia etortzen zait burura.

- *Kausa efektua edo kausalitatea.* Zerbait ikusten badugu eta badakigu hori beti dela beste baten ondorio, beste hori pentsatuko dut: etxe batetik ateratzen kea hautematen dut eta horren inpresioa dut, barruko suaren ideia etorriko zait burura.

Honetatik abiatuz, Humek tradizio luze bat jarraituz egia edo ezagutza motak bereiziko ditu, geroago Kantek sakonago egingo duen bezala. Alde batetik ideien arteko erlazioak ditugu, esperientziatik at daudenak, intuitiboak eta ebidenteak direnak, *a priorikoak*. Bertan ezagutza analitikoak kokatuko ditu: logika eta matematika. Adibidez: hipotenusaren karratua bi alboen karratuen arteko gehituraren berdina da, edo $3 \times 5 = 30/2$ izateak zenbaki horien arteko harremana dagoela proposatzen du. Bestetik, gertakarien auziak egongo dira, esperientziari buruzkoak direnak edo frogatu daitezkenenak. Hauek ez dira inoiz guztiz ziurrak izango, beti aldakorra den esperientziaren menpekoak izango direlako. Adibidez: bihar eguzkia aterako da, edo bihar ez da eguzkia aterako.

4.2. Metafisikaren kritika

1. *Kausalitatea.* Humek defendatuko du kausalitatearen inguruan mintzatzeko esperientzia beharrezkoa dela, hau da, ezinezkoa dela kausa-efektua arrazoimenaren bidez aurkitzea. Eredu arrazionalista ukatuko du, zeinetan *berezko* kausak eta *berezko* efektuak existitzen diren, zeinetan kausalitatea *a priorizkoa* den.
2. *Substantziaren ideia edo esentziaren kritika.* Humeren arabera, substantiza ideien kolezio bat izango da, irudimenaren bidez osatzen dugun bilduma, ez berez errealitatean existitzen den ezer.
3. *Eszeptizismo akademikoa.* Ezagutza mialan ez da posible gertakarizko auzietan behin betiko ezagutzarik eraikitzea: ezagutza probablea izango da, ez absolutua.

4.3. Filosofia praktikoa

Garai honetako pentsalarientzak, Lockerekin hasita, auzi sozialek gero eta garrantzi gehiago izango dute. Esparru honetan, eszeptizismoak arazoak izango ditu, etika praktikokan ziurtasunak behar baitira bizitza soziala ahalbidetzeko: ezin da esan hiltzea ona edo txarra

izan daitekeela esperientziaren arabera. Filosofia praktikoaren hiru esparruak definitzerakoan hurrengoa esango du:

- a) *Etika*. Sentimendu moralaren garrantzia defendatuko du, giza gaitasun gisa: “como la virtud es un fin último, tiene que haber necesariamente una inclinación interna que distinga entre el bien y el mal moral”.
- b) *Politika*. Lockek ez bezala, Humek ez du kontratu sozialaren teoria onartuko, eta honen aurka, gizarte egitura prozesu natural baten ondorioa dela onartuko du, bizirauteko nahiak bultzatuta.
- c) *Erljioa*. Hume atea izango da, esango du erlijioa abiapuntu psikologikoa duten arazo edo kezken materializazioa dela: heriotzari beldurra, etorkizunaren inguruko antsietatea...

(Ilustrazioa: Montesquieu, Voltaire eta Rousseau)

Ilustrazioa da, Kanten definizio klasikoaren arabera, gizakia berak bere buruari inposatutako heldugabetasunetik askatzea, hau da, norberaren autonomia gauzatzera ausartzea. Argien Mendea ere deitzen da garai hau, eta beraz, aberasgarria izango da *argiaren* kontzeptua filosofikoki aztertzea bere inplikazioak ulertu ahal izateko.

1. *Antzinaroa*. Persia eta Babilonian argia bizitzarekin berdintzen zen, eta Grezia Klasikoan argia ulergarritasuna izango da Platonen kobazuloaren mitoa. Biblian ere bai, Genesian, argiaren sorrera ordenarekin eta konexioarekin lotzen da.
2. *Erdi Aroa*. Garai honetan Jainkoaren eta gizakiaren argia bereizten hasiko dira, gizakiarena adimena izango da eta Jainkoarena batasuna, modu desberdinean, bai Agustinen bai Tomasen filosofian.

Filosofiaren sorrera Modernitatearen baitan ematen da, XVII. mendetik XVIII. mendera. Garai honetan, arrazoiak ulertzeko paradigman aldaketa emango da, indar bezala irudikatzen hasiko da, eraldatzeko gaitasuna duena, ez soilik kontzeptu bezala. Beste alde batetik, jakintza orokortuko da, eta filosofo handi gutxi batzuk egotetik filosofo txiki asko egoterako jauzia emango da, filosofia dibulгатiboa bilakatuko da eta ez sistematikoa. Aldaketa hauek filosofiaren objektuari dagokionez, zientzietatik gizarterako jauzia suposatuko dute, politika, antropologia... nagusituz. Aldaketa honi esker, Ilustrazioa kontzeptu bihurtuko da XVIII. mendetik aurrera, eta garai horretako produkzio kultural denen oinarria bihurtuko da. Hurrengo ezaugarri nagusiak izango ditu:

- a) Arrazoiaren emantzipazio edo autonomia, aurrekoei kritika: *Sapere Aude!*
- b) Sekularizazioa.
- c) Arrazoiarekiko eta aurrerakuntzarekiko fedea.

Ilustrazioaren garaiko filosofiak metodo berri bat planteatuko du, sistema analitikoaren aurka, helburua praktikoa izango delako teorikoa baino. D'Alembertek dioen bezala, kontsideratuko da gizakiak ia dena dakiela, eta beraz, garaia dela ezaugutza hori plano praktikoa batera aplikatzeko, ez soilik plano teorikoan gelditzeko. Garai honetan kasu berezi bat egongo da, Giambattista Vicoena (1669-1744), korrante orokorraren aurka doana. Autore

honek erakusten du normalean Ilustrazioa garai monolitiko gisa irudikatzen den arren, bazeudela ildo orokorrari aurka egiten zioten autoreak. Berak gizakia produktu historiko, kultural eta linguistiko gisa ulertzen du, gehiegizko arrazionalismoa kritikatu, eta giza ezaugutza eskuratzeko metodo anitzagoak defendatuz: *verum factor*.

1. Ilustrazioaren garapen historikoa

Ilustrazioa Europa osoan emandako mugimendu kulturala izan zen, gehien bat Ingalaterran, Frantzian, eta Alemanian. Leku bakoitzean, garapen berezia izan du, kronologikoki.

1.1. Ingalaterra, aurrekaria

Ingalaterrako Ilustrazioa normalean Frantziakoaren aurrekaria kontsideratu izan da, bertan hasi baitzen filosofia praktikoaren goraipamena planteamendu filosofikoen erdigunean. Ezinbestekoak kontsideratzen diren autoreak enpirismoaren korrontearen baitan kokatzen dira gehienak, etikari eta politikari dagokionez ziurtasun puntu bat defendatzen zutenak. Bi autore nagusi:

1. *John Locke*, 1688. Erlijioa ulertzeko modu deista, arrazoiaren eta fedearen arteko era bateko defentsa, erligio aniztasunaren testuinguruan ulertu beharrekoa. Etikari dagokionez, *a prioriko* sentimendu morala, judizio etikoak egiteko berezko giza gaitasuna.
2. *Adam Smith*. Berriro ere sentimendu moralaren aldekoa, sinpatia intuitibo eta moral baten existentzia defendatzen du.

1.2. Frantzia, erradikalizazioa

Ingalaterrako Ilustrazioaren erradikalizazioa, hau iturri nagusitzak hartzen duena. Aipatu behar da garai honetararte ez dela Iraultzarik ematen, egoera politikoa Estatu Absolutistek nagusitzen zutela, eta Ilustrazioa altxatu zela horren aurka. Horregatik, politikaren problemizazio bat emango da, Ingalaterran existitzen ez zena, bertan Iraultza jada eman baitzen. Garai honen hainbat erakusle:

1. *Entziklopedia*, 1751-1780. Entziklopediaren proiektuaren helburua jakintzaren osotasuna jaso eta antolatzea izango da, ezagutza erainkutzan finitu eta inteligible gisa ulertuta. Jakintza arlo txikia dela sinestuko da, mentalitate kuadrikulatu baten baitan.
2. *Panteismoa eta ateismoaren hedapena*. Erlijioa ukatzeko saiakera baten Egutegi Napoleonikoa planteatu zen, Errepublikaren sorrera garai berriaren lehenengo egun gisa ulertuz. Anekdotikoa bada ere, adibide honek erakusten du Ilustrazioa ordena aurkitzeko saiakera teorikoa dela, gero praktikan ezartzea ia ezinezkoa izango bada ere.

Bi ezaugarri hauekin hainbat autore lotzen dira, hala nola, Diderot, D’Alambert, D’Holbach... Baina Ilustrazio Frantsesaren hiru autoreak Montesquieu, Rousseau, eta Voltaire izango ditugu.

1.3. Alemania, garapen berantiarra

Alemanian Ilustrazioa berantiarra izango da, hasieran Frantzia eta Ingalaterrako korrantea jarraituko duena eta gero gehiago bereganatuko dena. Fase desberdinen inguruan aulertu daiteke garapen historiko hau:

1. 1750 urterte Ilustrazioa Alemandarra oso arrazionala izan zen, Wolff izanda erakusle gisa, eta kezka nagusitzat lege natural eta zibilaren arteko harremana finkatzea izan zen.
2. 1740 eta 1786 urteen artean, Federiko Handiaren errege filosofo garaian, bere pentsamendu tolerantzia nagusitu zen, Iraultza ahalbidetu beharrean gizartearengan erosotasuna zabaldu zuena. Bere obra nagusia Voltairek argitaratu zion, Frantsesek, oraindik ere Alemandarra Alemanian bertan gorrotatzen zelako.

2. Montesquieu

Montesquieu noble eta dirudun familian jaiotako pentsalaria da, Louis XIV. eta XV. erregetzaren garaian bizi izan zena. Bere miresmen filosofikoa Ingalarreri zor dio, bere

sistema politikoa eta Lockeren lana eredu izango ditu. Zuzenbidea ikasita, bere lan nagusiak *Cartas Persas* (1721) eta *Legeen izpiritua* (1748) izango dira.

2.1. Historia politikoaren ikerketa

Enpirismoaren izpiritua jarraituz, teoria politiko egokiena eratzeko soziologo positibista baten modura ulertu eta deskribatu nahiko ditu gizarte desberdinak, metodo konparatiboaren bidez, amankomuna den hori aurkitu ahal izateko. Bere helburua gertakarien ulermen konparatiboa eskuratzea izango da, historiaren filosofo baten antza, printzipio unibertsalaren defentsa arrazoitu bat egin ahal izateko. Modu honetan, historiaren ikuspegi oso baten alde joko du, irudi *fotografikoaz* haratago historiaren ulermena eta azalpena ahalbidetzen duena.

Bitarteko gisa legeen *izpiritua* hartuko du, *izpiritua* izaera edo nortasun gisa ulertuta. Montesquiek defendatuko du legeek nazio baten izpirituari erantzuten dietela, *legeen erlatibismoa*, ez modu esistentzialista batean, baizik eta *a posterioriko* filosofiaren abiapuntua aurkitzeko saiakeran. Ezinezkoa da gizartea eta bere portaera datuen eta gertakarien arabera azaltzea, badaude inertziak, tendentziak, iritziak... *izpirituaren* araberakoak direnak, izarerrari erantzuten diotenak eta gizarte baten nolakotasuna definitzen dutenak. Ideia honetatik abiatuta, tolerantzia eta erlatibismoaren aldeko argudioak emango ditu: Pertsian edo Parisen heziak izanez gero, gauza ezberdinak desiratuko genituzke, ez dago zerbait bere baitan ondo gaizki dagonik.

2.2. Legeen azterketa

Aristotelesek bezala, herrialde eta gizarte desberdinen lege edo ordena politikoak aztertuko ditu, horien ulermen osoa lortu ahal izateko. Hau egiterakoan, legeak baldintzatzen dituzten *baldintza naturalak* bereiziko ditu, eta haien inguruko hausnarketa egingo du:

1. Tamaina: herrialdeak handiagoak direnean monarkiarako joera dute; eta txikiagoak direnean, errepublikarako joera.
2. Klima, zentzu oso zabalean ulertuta. Geroz eta klima beroagoa, gero eta egitura politiko egonkorragoak, eta geroz eta hotzagoa, gero eta “kaotikoagoa”.

3. Faktore sozio-historikoak: erlijioa, ohiturak, historia, ekonomia... Puntu honetan azpimarratu behar da Montesquierentzat baldintza *naturalen* baitan gaur egun sozialak kontsideratuko genituzkeen hainbat faktore daudela, gizakiak sortzen dituen arren, jaiotzean banako bati inposatzen zaizkion faktoreak dira eta.

Behin legeen azterketa eginda, eta munduan zehar aurkitutako ordena politikoak ezagututa, hiru gobernu mota nagusi bereiziko ditu:

1. Despotismoa, gaur egun absolutismoa izango litzatekeena. Gobernantzaren printzipioa edo bertutea beldurra izango da, *le'état cést moi*, berak bizi izandako Luis XIV. antzera. Kasu hauetan, erligioak garrantzi handia izango du eta ez du konstituziorik izango.
2. Monarkia, gaur egun monarkia parlamentarioa izango dena, Ingalaterrako ordena politikoa eredutzat hartuz eta idealizatuz. Gobernantza mota hau konstituzioaren arabera izango da, bere bertutea ohorea izanik. Hau izango da Montesquieren ordena politiko gustokona, botere banaketarengatik gehien bat.
3. Errepublika, demokrazia eta aristokrazia barne. Bere printzipioa bertutea izango da. Montesquiek onartuko du ordena hau erabilgarria izan daitekeena, baina herrialde txikiagoetarako irudikatuko du.

2.3. Botere banaketa eta askatasuna

Lockeren botere banaketaren teoriatik abiatuta, eta Ingalaterrako Konstituzioa eredutzat hartuz, hiru botere bereiziko ditu: legegilea, betearazlea, eta judiziala. Hortik abiatuta, esango du politikaren zeregina egoera klimatiko eta sozialera egokitzea izango dela, sistema politikoa ideal baten forma inperfektu gisa irudikatuz. Montesquieu askatasunaren defendatzaile sutsua izango da, eta horregatik, bere botere banakek eta legeek kontzeptu hau izango dute erdigunetzat. Ikuspegi honek garrantzi handia izan du filosofia politikoaren historian, AEB-ko edo Frantziako konstituzioen abiapuntu izanik.

3. Voltaire (1694-1778)

Montesquieu ez bezala jauntxoak ez zen arren, ikasteko aukera ugari izan zituen Jesuiten eskutik. Bere proiektu filosofikoak boterearekin arazoak ekarri zizkion, eta horregatik, munduan zehar leku askotan bizi izan zen, Ingalaterra barne.

1. *Gutun filosofikoak, 1734.* Ingalaterrako bizipenen ondoriozko idatzia.
2. *Metafisikari buruzko tratatua, 1736.* Leibnizen aurka.
3. *Hiztegi filosofikoa, 1764.* Bere interesekoak ziren kontzeptu filosofikoen bilduma.

Voltaireren filosofia ulertu ahal izateko berak bizitzako momentu historikoa kontuan hartu behar da. Luis XIV.aren absolutismo gogorra bizi izan zuen, eta boterearen aurka agertzeagatik, preso egon zen Bastillan, Ingalaterrara desterratu zuten arte. Bueltatzerakoan erregeak estatuko historiagile izendatu zuen, baina harremana ezegonkorra zenez, azkenean Alemanian bizi izan zen bertako erregearekin harremanetan.

3.1. Dogmatismoaren kritika

Voltairek kritika sutua egingo dio Elizari, ez erlijiori, dogmatismoaren eta fanatismoaren definizioen bidez, tolerantziaren alde katolizismoa kritikatu. Bere pentsamendua *deismo ilustratua* bezala definituko du: ateismo erradikalaren eta teismoaren arteko posizioa. Deismoaren planteamenduak jainkozko legea eta lege kontua berdintzen ditu, erligioaren ikuspegi arrazionala defendatuz. Tesismoak, beste alde batean, erligiosotasun errebelatu batean sinesten du, mezen eta otoitzen egituraren baitan. Bere pentsamendua Jainkoarekiko: “*si Dios no existiera habria que inventarlo*”.

Honen haritik Voltairek *teodizearen kritika* bat egingo du, Leibnizek proposatutako terminotik abiatuta, hau da, Jainkoaren existentzia arrzoibideen bitartez frogatzen eta haren ezaugarriak eta izaera aztertzen saiatzen den filosofiaren adarra. Voltairek ez du Leibnizen ikuspegia onartuko, natura dena harremanetan dagoela eta gure mundua mundurik onena dela, berarentzako, optimismo erradikal horrek infantilismo puntu bat izango baitu. Voltairek ezin izango du onartu Ongian oinarritzen den mundu honetan gaizkia, bekatua, goseteak, sufrimendua... existitzea.

3.2. Historiaren filosofia

Historiaren filosofiaren kontzeptua Voltaireren eskutik zabaldu izan da. Ilustrazioaren izpiritua jarraituz, arrazoiaren bidezko progresioan sinesten du, bere garaia gorestuz eta aurreko garai historikoak gutxiestuz, gehien bat Erdi Aroa. Hainbat autoreek historizismo hau gainditu badute ere, oraindik ere garapenaren eta betierezko progresuaren ideia oraindik ere gure gizartea ulertzerakoan oinarrian jarri behar da beti. Voltaireri zor zaio historiaren teologiatik historiaren filosofiarako jauzia, hau ulertzeko modu tradizionala zena. Historiaren filosofiaren baitan hurrengo ideiak aurkitu ditzazkegu:

1. Voltairek despotismo ilustratuaren defentsa egingo du, monarkia absolutoaren moldaketa Ilustrazioaren eduki arrazionalen bidez: *todo para el pueblo pero sin el pueblo*.
2. Historiari garrantzia eman zion lehen autoreetako bat da, baina Ilustratua den heinean, oraindik ere hau filosofiaren menpekota izango da. Historia interesatuko zaio aniztasun batetatik amankomuneko pentsamendua eskuratu ahal izateko, benetako jakintza emango duen filosofiari edukiak inposatzeko. Gertakari historikoak filosofiaren epifaniak dira.
3. Historiaren bidez nazioaren izpiritua edo geinua azaldu nahiko du. Nazio bakoitzaren izaera biltzen dituen ohiura, tradizio, ezaugarri... multzoa da, *a posteriorikoa*.

4. Jean Jaques Rousseau (1712-1778)

Rousseau Suitzako pentsalari bat da, eta beraz, ez zen inoiz Ilustrazioko paradigma frantsesaren biatan aurkitu. Bere lan nagusiak politikaren eta hezkuntzaren ingurukoak dira, haien artean, *Zientzien eta arteen kritika* (1750), *Emilio* (1762), eta *Gizarte hitzarmena* (1762).

4.1. “Gizakiaren natur-egoera askea” eta naturarako itzulia

Rousseauk kritikatu du ilustrazioaren progresioarekin gizaki naturalaren askatasuna galdu izana, zientziaren eta arteen bidez bereiziki. Gizaki naturalaren eta artifizialaren arteko bereizketa egingo du, azken hau gutxiesiz. Bi gizaki hauen arteko desberdinasuna *maitasun propioaren* arabera egingo du:

1. *Amour de soi*. Autoestima, egoera naturalean nagusia, Kontzientzia norberaren gaitasunarekiko.
2. *Amour propre*. Heteroestima artifiziala, norberaren erreputazioari edo itxurari ematen zaion garrantzia. Gordinean ikusten du Parisen, baina garaiko eta betiko gizarteetan ageria da. Nietzsche: *nos llevamos peor con nuestra mala reputación que con nuestra mala conciencia*.

Arazo hau bere garaiko progresuan, gizartean, zientzian, hezkuntzan, politikan... ikusiko du. Gehiegizko arrazionalismoaren bidez gure bizioak disziplina bihurtu dira, zientzia adibidez, eta beraz, naturarekiko itzulera behar da agerizko progresu honen norabidea zuzentzeko. Rousseauen arabera progresoa ez da gizartean emandako aurrerapenen multzoa, baizik eta egoera naturalaren jatorrira itzultzea. Hau egitea posible izango da gizartearen korrupzioaren historia bat eginez, eta horrela, horren aurretiko jatorrizko egoera aurkituz. Egoera hau ez du enpirikoki aurkituko, baizik eta hipotetikoki: egoera naturala irizpide normatibo abstraktu bezala ulertu behar da, egoera artifiziala iraultzeko beharrezkoa dena.

4.2. Helburua

Rousseauen filosofiak helburu garbi bat izango du bere osotasunean: gizakiak galdutako askatasuna berreskuratzea. Hau bi esparrutan gauzatuko du:

1. *Hezkuntza*. Hezkuntzak gizarteko arauak, ohiturak... errepikatu eta birproduzitzen ditu, eta beraz, natura egoeratik aldentzeko mekanismo gisa funtzionatu dezake. Rousseauk aldarrikatu du, gehien bat *Emilio* (1762) lanean, haurrak bere kabuz ikasi behar duela, formakuntzak barnetik atera behar dituela, hezkuntzak rol

bideratzailea betetzen duen bitartean. Hezkuntza negatiboaren kontzeptua proposatzen du: trabak kendu behar zaizkio haurrari, bide denak ireki eta autogarapena sustatu.

2. *Politika edo gizartea.* Gizakiaren berezko egoera naturalaren hipotesitik abiatuta, *hitzarmen sozialaren* teoria planteatuko du, horren arabera gizarte eredu efizienteena adosteko modu gisa. Gizakia berez askea da, eta komunitate batean egoteak askatasun hori mugatzen badu ere, modu egokian egiten bada askatasun horren ekibalentea aurkitu dezake babes eta indarrean.

1. **Sarrera: bizitza, ekarpena, eta kritikak**

Immanuel Kant 1724an jaio zen Königsberg-en, gaur egun Kaliningrado deitzen dena. Garai batean, Prusiar estatuaren bigarren hiriburua izan zen, gaur egun Polonia eta Lituania artean dagoen Errusiar lurraldea bada ere. Pietismoan hezia izan zen, bere filosofian erakundeekiko kritikan, autonomian, eta norbanakoaren garrantzian ikusi daitekeena. Unibertsitatean hezkuntza plurala jaso zuen: hebreoa, grekoa, latina, matematika, poesia, filosofia, zientzia... Irakasle pribatu gisa aritu ondoren, 1755an unibertsitatean sartu zen, denetariko irakaslea izanik 1770an Metafisika eta Logika katedra lortu zuen arte. Hortik aurrera, bere filosofia propiaren garapenari hasiera eman zion, 1781tik aurrera *Arrazoimen hutsaren kritika*-ren argitalpenarekin bere pentsamendua formalki garatuz.

Kant modernitateko pentsalari garrantzitsuenak da, eta filosofiaren historia osoko garrantzitsuenetarikoa, ontofiliatik epistefiliarako saltoa ematen duelako, hau da, metafisika egitetik epistemologia egitera. Berarekin, subjektua ezagutzaren abiapuntu eta erdigune bihurtzen da, filosofiaren aztergai bakarra: ezagutza subjektutik abiatzen da (Descartes), baina objektuaren ezagutza bera ere subjektuaren araberakoa da. Bere filosofiaren helburua hurrengo lau galderak erantzutea izango da, denak ikuspuntu antropologikotik abiatuta:

1. Zer ezagutu dezaket? Epistemologiarekin lotutako galdera.
2. Zer egin behar dut? Moralarekin lotutako galdera.
3. Zer espero dezaket? Erljioarekin lotutako galdera.
4. Zer da gizakia? Ez da modu ezplizitoan erantzuten, beste hiru galderak biltzen ditu.

Kanten *kritiken* helburua arrazionalismoaren eta enpirismoaren eztabaida gainditzea izango da, baita dogmatismoa eta eszeptizismoarena ere bai. Hau egiteko plantemendu erradikaletatik aldentzen den hirugarren bide bat bilatuko du:

1. Enpirismoa: ezagutza esperientzian oinarritzen da. Arrazionalismoa: ezagutza arrazoiari oinarritzen da. Kant: esperientzia eta arrazoiak biak beharrezkoak dira, bakoitza bere esparruan.

2. Dogmatismoa: ezagutza posiblea da. Eszeptikoa: ezagutza ez da posible. Kant: ezagutza posiblea da neurri batean, gizakiaren mugen arabera.

Kritika hauen lehenengo pausua iraultza kopernikarra izango da: arreta objektutuik subjektura mugitzen da. Objektuan bakarrik finkatuko bagina, realismo transzendentalaren *ilusioan* eroriko ginateke, eta entendimendua objektura moldatzen dela onartuko genuke modu okerrean. Subjektua erdigunetzak hartuta, beste alde batetik, filosofia transzendentala egingo genuke, eta horrela, objektua entendimendura egokitzen den hori bezala ezaugarrituko genuke modu zuzenean. Honekin, bere aurreko eztabaidak “gainditzen” ditu, ezagutzatik *giza* ezagutzara jauzia eginez:

1. Kant eta dogmatikoak:
 - a. Alde: posible izan behar da egiazko ezagutza batetaz hitz egitea.
 - b. Kontra: ezin dugu “gauza bat bere hortan” ezagutu, *noumenoa*.
2. Kant eta eszeptikoak:
 - a. Alde: ez da posible gauzen ezagutza absolutu bat.
 - b. Kontra: gutxienez, posible da gauzak guretzat zer diren ezagutzea, *fenomenoa*.
3. Kant eta arrazionalistak:
 - a. Alde: ezin dugu ezer ezagutu arrazoimeneko *a prioriko* formarik gabe.
 - b. Kontra: *a prioriko* formek ez dute errealitateari buruz ezer berririk esaten.
4. Kant eta enpirikoak:
 - a. Alde: ezagutza oro esperientziatik hasten da.
 - b. Kontra: ezagutza guztia ez dator esperientziatik, *Leibniz*.

1.1. Garai prekritikoa, 1781 arte

Kanten biografian bere filosofiaren garapena ikusi daiteke, filosofia kritikora nola iristen den ulertzeko baliagarria izan daitekeena. Kontuan hartu behar da, hala ere, bere pentsamendua ziuraski urte gehiagotan garatu izan zuela, oharpenen bidez ulertu daitekeena:

1. 1746tik 1755ra, irakasle pribatua zen jauntxoan etxeetan, baina ikusten zen jada arrazionalista Ilustratu klasikoa ez zela, gehien bat espazioaren nozioarekin bat egiten ez zuelako. Newtonen eraginarekin, ondorioztatuko du: espazioa ez da munduaren edo gauza baten ezaugarri bat, baizik eta izatearen aurretiko baldintza bat (gero espazioaren *a prioriko* forma izango dena). Garai honetako idatzietan ere logikaren edo gramatikaren eta errealiarearen edo existentziaren arteko desberdintasuna azpimarratuko du, gehien bat Jainkoaren existentziarekin eta horren defentsen errakuntzekin lotzen duena.
2. 1764 eta 1766 urteen artean Hume eta Rousseauren lanetan sakonduko du, eta hortik, bere kritikaren txinparta piztuko du. Ezagutzaren alorrean, Kantek esango du “Hume izan zen lokuluxka dogmatikoitik esnatu ninduen lehendabizikoa”, berak egindako kausalitatearen kritikari erreferentzia eginez. Rousseauren garrantzia moralaren alorrean kokatuko du, bertan ikusiko baitu moralaren printzipioak barnetikoak direla: “Rousseau me ha abierto los ojos”
3. 1769-1770an idatzitako gutuna, zeinatan lagun bati esaten dion metafisikaren arazoak gainditzeko abiapuntua aurkitu duela. Esan daiteke iraultza kopernikarraren eta beraz garai kritikaren lehenengo hastapena izan daitekeela, argitalpenari begira 1781 arte garai kritikoa izendatzen bada ere.

Garapen filosofiko honen ondorioz, eta 1770tik aurrera unibertsitatean Logika eta Metafisika katedra eskuratu ondoren, bere filosofia propioa garatuko du aipatutako iturri denak kontuan hartuta.

1.2. Garai kritikoa, 1781tik aurrera

Garai honetan iraultza kopernikarra gauzatu zuen. Bere pentsamenduaren egitura ulertzeko, baliagarria izan daiteke bere lanen kronologia kontuan hartzea:

1. 1781. Arrazoimen hutsaren kritika (A).
2. 1783. Prolegomenoak, AHK (A)-ren laburpena.
3. 1785. Ohituren metafisika.
4. 1787. Arrazoi hutsaren kritika (B), hitzaurrea gehituta.

5. 1788. Arrazoimen praktikoaren kritika.
6. 1790. Judizioaren kritika.

Orokorrean gai hau *Arrazoimen hutsaren kritikan* oinarrituko da, baina lehenik eta behin, *Arrazoi praktikoaren kritika* eta *Ohituren metafisikaren* inguruko ideia pare bat landuko ditugu. Kanten ardura ez da printzipio moralen ezagutza absolutua, baizik eta horren justifikazioaren zergatia. Hari honetatik, arrazoi praktikoaren maxima proposatuko du, *imperatibo kategorikoa*: joka ezazu zure jardueraren printzipioa unibertsala izango balitz bezala.

2. Arrazoimen hutsaren kritika (1781)

Lan hau F. Baconen (1620) aipamen batekin hasten da, Kant bere jarraitzaile gisa identifikatzen baita. Bere helburua Metafisika berri bat proposatzea izango da, filosofia transzendentalean oinarritzen dena, zentzu klasikoan ulertutako metafisika ez delako *erreal*a objektuan oinarritzen den heinean. Horrela, ezagumena eta arrazoimena ezagutu nahiko ditu, haien arteko muga finkatuz, eta *giza* ezagutzaren nolakotasuna deskribatuz. Bere metodoa, lehen aipatu bezala, **iraultza kopernikarra** izango da, zeinetan objektutik subjekturako aldaketa ematen den. Horrela, ondorioztatuko du objektuak beti entendimendura moldatzen direla, eta kontrakoa pentsatzeak ilusio metafisikoa suposatzen duela. Bere helburua, lehen aldiz, *ezagutza ezagutzea* izango da.

2.1. A priorizko judizioak

Kantek filosofiaren, eta beraz, ezagutzaren, jatorria *a prioriko* judizioetan oinarrituko du, hau da, gizakiaren arrazoimenari berezkoak zaizkion ideietan. A prioriko judizio mota hautan bi sailkapen egingo ditu:

1. *Judizio analitikoak*. Judizio hauetan predikatua subjektuaren baitan dago, subjektuari predukatua dagokio, ez dute ezagutza zabalduko: triangelu bat hiru alde ditu. Eduki hau, beraz, ez dago esprirentziaren menpe, beharrezkoak eta unibertsalak dira, “horrelakoak dira eta ezin dira bestelakoak izan”.

2. *Judizio sintetikoak.* Judizio hauetan predikatu ez dago subjektuaren barne, ez da nahitaezko, eta beraz, gure jakintza zabaltzeko gai izango da. Eskaintzen duten edukia esperienttzian oinarrituko da, probablea izango da, baina ez beharrezkoa ezta uniberstala.

Giza ezagutzak, beraz, judizio analitiko eta sintetikoak, hau da, ulermena eta sentsibilitatea, konbinatuko ditu. Guk jaso eta jartzen dugunaren arteko nahasketa izango da, aurretiko kontzeptuak esperientziara aplikatzerakoan ematen dena. Modu batean esanda, esperientziaren bidez jasotzen dugun materiari apriorizko judizioen bidez forma ematen diegu, errealitate filtratzen dugu, giza adimenera egokitu dadin. Planteamendu honek arrazionalismoaren eta enpirismoaren arteko sintesi bat suposatzen du, muturreko bi planteamenduen arteko ikuspegi bat planteatuz. Horrela, ezagutza pasiboaren ideia kritikatu du, eta esango du giza ezagutza beti aktiboa dela, etengabe jasotzen dugun horri zerbait jartzen diogulako.

3. *Giza arrazoimen transzendentala: Arrazoi Hutsaren Kritikaren hiru atalak*

Kantek, Arrazoi Hutsaren Kritikan, estetika eta logika transzendentalk proposatu nahiko ditu, zeinaren aztergaia, apriorizko formak eta helburak garbi gelditzen diren, zientzia baten bezala. Hau izango da eskema jarraitzen duen eskema orokorra:

GIZA ARRAZOIMENA		AZTERGAIA & AZTERTZAILEA		APRIOZKO FORMAK (trazsentalak)				
	Estetika trazsental	Ezagutzasentsiblea	"sentsibilitatea" "sensibilidad" "Sinnlichkeit"	Intuizio (sentsible) enpirikoa: Materia	////	F E N O M E N O A	O B J E K T U A	E Z A G U T Z A
				Intuizio (sentsible)hutsa: Forma	Espazioa Denbora			
t r a s z i e n d e n t z i a	Analitika trazsental	Ezagutzaintelektuala	"adimena" "entendimiento" "Verstand"	Determinazio kontzeptuala	Kategoriak Printzipioak	////		
	Dialektika trazsental	Pentsamenduintelektuala	"arrazoimena" "razón" "Vernunft"	Printzipio erregulatiboak	Ideiak edo postulatua Ni (suj.-aren batasuna) (arima / hilezkortasuna) Mundua (fen.-en bat.) (kosmos / odena) Jainkoa (pents.-aren bat.) (ideia eta ideala)	////	////	////

3.1. Estetika Transzendentala

Estetikaren aztergaia ezagutza sentsiblea izango da, enpirikoa, zentzumenen bidezkoa. Hala ere, ezagutza hau ez da intuizio sentsible enpirikoa izango, hori bere abiapuntua izango da, baina intuizio sentsible hutsa gaineratu beharko zaio. Hau da, gure ezagutza zentzumenetan hasten da, baina adimena behar da horri forma eman ahal izateko.

Forma horiek, aprioriko intuizio sentsible hutsak, espazioa eta denbora izango dira Kantentzako. Horrela, enpirismoaren ziurtasun falta gainditu nahiko du, intuizioaren apriorizko formen bidez. Esan daiteke materia formarik gabeko edukia dela, eta formak berriz, edukirik gabeko egiturak. Bi hauek gehituta fenomenoak lortuko dugu, objektuaren aurretiko ezagutza, zeinari dagokoeneko subjektuak *zerbait* gehitzen dion. Planteamendu honek bi ondorio nagusi izango ditu:

1. *Matematikaren posibilitatea.* Espazioaren formak geometria ahalbidetzen du, eta denborak berriz, aljebra. Horrela, judizio sintetikoetan oinarritzen den zientzia hau posiblea da.
2. *Subjektuen garrantzia berrituta.* Kantek, Descartesen subjektua haratago eramanez, subjektu transzendentalearen kontzeptua porposatuko du, ezagutzeko gai den pentsalaria. Gizakia, beraz, ezgautza aktiboaren printzipioa izango da, argi bat izango balitz bezala: objektuak argira urbiltzen diren heinean izango dira ikusgarriak.

3.2. Analitika transzendentala

Analitika transzendentalean Kantek aurretik aipatutako ezagutza fenomenikoari adimena gehituko dio, ezagutza intelektuala ondorioztatzeko. Eman den objektuari, intuizioak ulertarazi duenari, entendimendua gehituko dio: kategoriak eta printzipioak. Bereizketa hurrengoa izango da: intuizioa objektuak guregan duen arainaren nolakotasuna da, eta entendimendua intuizio sentsiblearen objektua pentsatzeko gaitasuna. Laburbilduz, Kantek hitzetan: “*Los pensamientos sin contenidos son vacíos, las intuiciones sin conceptos son ciegas. Solo de su unión puede salir el conocimiento. La intuición sensible no es todavía conocimiento.*”

Entendimenduaren edo ulermenaren printzipioak kategoriak izango dira, ezagutza pentsatzeko adimenak apriori dituen mekanismoak. Kantek hauek lau taldeetan banatuko ditu:

1. Kantitatearen arabera: osotasuna, pluraltasuna, unitatea.
2. Kualitatearen arabera: errealitatea, negazioa, limitazioa.
3. Erlazioaren arabera: substantzia, kausalitatea, acción reciproca.
4. Moduaren arabera: posibilitatea, existentzia, beharrezkotasuna.

Analitikaren ondorio nagusia enpirismoaren eta arrazionalismoaren arteko zubia izango da, zeinetan sentsibilitate enpirikoak eta entendimendu arrazionalak biek ezinbesteko rola duten ezagutzarako. Honek idealismo berezi bat proposatzen du, zeinetan objektuaren eta subjektuaren orekak ahalbidetzen duen Metafisikaren existentzia.

3.3. Dialektika transzendentala

Dialektika tranzendentalaren pentsamenduan arloan Kantek esperientzia ezagutzatik kanpo kokatzen du. Bere hitzetan, “*arrazoiari mugak jarri behar dizkiot fedeari tartea uzteko*”. Kantek esango du gizakiak kategoriekin *jolasteko* gaitasuna duela, hau da, gai dela kategoriak eta printzipioak erabiliz kontzeptuak asmatzeko, haien jatorri sentsiblea kontuan hartu gabe. Honi, ilusio transzendentala deituko dio. Ideia horien artean hiru postulatu hauek kokatuko ditu:

1. *Ni-a, subjektuaren batasuna.* Kantek ez du onartuko Descartesek planteatzen zuen “pentsatzen dut beraz substantzia bat naiz”: onartuko du ideia hau suposatu edo postulatu daitekeela, baina ez izango da berez ezagutu. Hau auresuposatzen duen pseudo zientzia horri psikologia arrazionala deritzo, eta honek ondorioztatzen du substantzia sinple, hilezkor eta immaterialaren izaera. Honen haritik gai gara duintasunaren, berdintasunaren, justiziaren... kontzeptuen existentzia onartzeko.
2. *Munduaren ideia, fenomenoaren batasuna.* Munduak dena gobernatzen duen orden bat duela auresuposatu daiteke, baina hori ezin da ezagutzaren bidez frogatu, ez da *a prioriko* erlazio edo batasun bat. Hau auresuposatzen duen zientzia kosmologia

arrazionala deritzo, arrazoimen erregulatiboaren bidez ezagutzen dena, ez arrazoimen konstitutiboa.

3. *Jainkoa, pentsamenduaren batasuna.* Ideia eta ideal den Jainko perfektaren existentzia auresuposatu behar da: “*el ser supremo es tan improbable como irrefutable*”. Honi teologia arrazionala deritzo, eta kontzeptuaren eta errealitatearen arteko bereizketaren bidez azaltzen du.

Kantek onartuko du, beraz, Nia, Mundua eta Jainkoaren kontzeptuak ez direla ezagutzaren ondorioz, baizik eta munduaren baitan bizi eta norbera kokatzeko beharrezkoak diren postulatuak.

1. Sarrera: kontzeptua, gakoak, autoreak

Idealismo Alemandarra testuinguru jakin batean garatzen da, kultura garapen handiko garai batean. Idealismoak defendatuko du gizakia gizakia dela idealak dituelako, zeinetatik gizarte aldaketak jaio daitezkeen. Kantetik abiatuko dira bere aurka egiteko, eta etsai nagusizat, materialismoa izango dute. Idealismoaren nolakotasuna ulertu ahal izateko, baliagarria izan daiteke bere jatorriko kontzeptuak aztertzea, korrante filosofiko honen nolakotasunari testuingurua emateko:

1. *Ideia, eidos*. Ideia edo *eidos* grekoa zerbaiten azaltzeko modua (objektua) edo norbaiten ikusteko modua (subjektua). Ideiak, beraz, errealitatearen ordezkapen bat suposatzen du, hau ezagutzeko mekanismo gisa ulertu daiteke, Idealismoaren kasuan, subjektuarekin lotzen dena. Ideia kontzeptuak hiru plano izan ahal ditu:

- a) Plano logikoa, ideia entitate kontzeptuala da.
- b) Plano psikologikoa, ideia entitate mentala da.
- c) Plano metafisikoa, ideia entitate erreala da.

2. *Ideala*. Errealitate enpirikoarekin aurkakotasunean ulertzen dena: objektu bat erreala edo ideala izan daiteke. Ideal hitzak erabilera ugari ditu, egunerkoasunean baita filosofiaren historian: Kanten Jainkoa, Platonen Ongia...

Orokorrean, esan daiteke idealismoaren abiapuntua subjektua dela, barne mundua kanpo mundua baino. Horrela, nia, kontzientzia, izpiritua, arima eta adimena bezalako kontzeptuak nagusituko dira. Barne mundu hau kanpoko munduaren errepresentazio gisa ulertu behar da, *gauzak gizaki moduan ikusten ditugula* kontuan hartuz: Kanten ideiak muturreraino eramanda, defendatuko da subjektuak berak sortutako objektua ezagutzen duela. Horrela, *noumenoa* alde batera utzita, subjektuaren bidez guztizko ezagutza lortu daitekeela esango dute.

1.1. Idealismoaren autore garrantzitsuenak

Idealismoa arrazionalismoaren jarraipen gisa ulertu izan da, eta beraz, ideia idealistak kontuan hartzen dituzten hainbat autore daude aurreko tradizioetan: Berkley, Spinoza, Descartes... Are gehiago, Kant ere idealismoaren tradizioak kokatu daiteke, berea idealismo *transzendental*a bada ere. Gai honetan berez landuko ditugun autoreak hurrengoak dira:

1. *Fichte* (1762-1814), idealismo subjektiboa. Subjektua gehien azpimarratzen duen autorea, objektua bera subjektuaren barnean kokatu. Askatasunaren eta ekintzaren defentsa egiten du, Frantziako Iraultzarekin lotuta.
2. *Schelling* (1775-1854), idealismo objektiboa. Askatasuna gizakiarekin lotuko du, eta natura objektuarekin, eta hortik abiatuta, panteismo eta erromantizismo bat garatuko du.
3. *Hegel* (1770-1831), idealismo absolutua. Aurreko bi autoreen ikuspegiak bateratuko ditu idealismo orokor baten baitan: “pensar=verdad=ser”. Subjektuaren eta objektuaren arteko oreka bilatu nahian, ondorioztatuko du gizakiaren kategoriak eta naturaren ezaugarriak berdinak direla.

2. Johann Gottlieb Fichte (1762-1814)

Fichte baserritar familia pobre batean jaio zen. Kontatu ohi da bere filosofia eta teologia ikasketak jauntxo batek ordaindu zituela, igandeko meza baten berandu iritsi eta meza osoa errepikatu ziolako. Jenako unibertsitatean irakasle gisa haritu zen, baina 1798an ateo izateagatik hortik bota eta Berlinera joan zen, bertako jauntxoei klaseak ematen. Bere lan nagusiak hurrengoak dira:

1. *Ensayo sobre la crítica de toda revelación* (1792). Testu hau Kanten *Arrazoi Hutsaren Kritikaren* haritik idatzitako testua da, Fichtek Kanti berari aurkeztu ziona. Kantek, liluratuta, modu anonimoan argitatu zion, baina jasotako arrakastaren ondorioz, bere autoretza publiko egin zen eta egun batetik bestera sekulako arrakasta lortu zuen.

2. *Fundamentos de la doctrina de la ciencia* (1794). Bere ezagutzaren teoria, bere libururik famatuena. Zazpi edo zortzi berargitalpen izan zituen, bere arrakastaren erakusle izan daitekeena. Jenan irakasle lana lortu zuen garaian idatzi eta argitaratu zuen lan hau. Lan honetan subjektuaren eta objektuaren arteko bereizketaz arituko da, Nia eta ez-Nia edo izpiritua eta kulturaren arteko bereizketak planteatuz.
3. *Discursos a la nación alemana* (1808). Napoleoen aurkako diskurtsoen bilduma, Alemaniako herriak batu nahi izateko helburuarekin. Behin Berlinen idatziko du lan hau, *bigarren etapa* bezala ezagutzen den horretan.

2.1. Lehen filosofia, 1798 arte

Garai honetan Kanten filosofiatik abiatzen da, baina bere planteamenduari buelta emanaz. Kantek objektuaren eta subjektuaren arteko oreka mantendu nahi duen bitartean, Fichtek subjektuaren alde joko du. Orokorrean, esango du subjektuak askatasuna suposatzen duela, Nia, eta objektuak berriz, determinismoa, beharra, ez-Nia. Kanten filosofia transzendentalari Frantziako Iraultzatik abiatutako erreforma politikoa gehitu nahiko dio, bien arteko bateraketa proiektu filosofikotzat hartuz. Praktika eta teoria lotu nahiko ditu praktikatik abiatuz. *Ni-aren dialektika* ere Fichteren filosofiaren gakoetako bat izango da, zeinaren arabera suposatzen duen Nia jarri egiten dela, autoafirmatzen dela, *el yo se pone a sí mismo*, ez-Niarekin edo determinismoarekin kontrastatzen duena. Bi elementu horien arteko kontraesanaren baitan batasuna egongo da, Ni purua edo transzendental.

2.2. Bigarren filosofia, ateismoaren polemika

Fichteren bigarren etapa hau Jenako unibertsitatetik bota zutenean hasten da, *Sobre el fundamento de nuestra fe en el gobierno divino del mundo* lana argiratzeagatik. Testu honetan Jainkoa eta egitura morala alderatuko ditu, “Dios es este mismo actuante y sintiente orden moral”, Kanten filosofia praktikokoaren ideiak garatuz. Honen ondorioz ateismoagatik eta gazteen hezkuntza usteltzeagatik salatu zuen, Sokratesi egin zioten bezala. Ateismoarekiko “beldur” hau panteismoaren inguruko ezatabaida zabalago baten baitan ulertu behar da, Mendelsson eta Jacobik Lessingen inguruan izan zuten ezatabaidaren baitan, hain zuzen ere. Erligiosoak dirudien arren, ezatabaida honek arrazoiaren mugak eta fedearen rola arakatzen ditu, eta beraz, filosofikoki ere baliagarria da.

Garai honetan bere *Zientziaren doktrina*-ren berrikuspen garrantzitsuena garatu zuen, 1804an, zeinetan aurreko pentsamenduarekiko aldaketa nabariak ematen diren erlijioaren testuinguruan. Lehen ez bezala, erligioa eta morala gehiago bereiziko ditu, Kanten ikuspegitik aldentuz. Berrikusketan honetan ere zuzenbidearen eta moralaren arteko lotura hareagotuko du, Napoleonen konkistaren testuinguruan. Bere *Discursos a la nación Alemana* lanean, Alemania hizkuntzaren eta hezkuntzaren bidez bateratzeko deia luzatuko du, Frantziako Iraultzaren printzipioak bereganatuz.

3. Friedrich Schelling (1775-1854)

Friedrich Schelling familia aberatsean jaio zen, pastore luteranoak izandakoak, eta beraz, Tubingeneko seminarioan ikasteko aukera izan zuen Hegelekin batera. Hezkuntza honen baitan Kant eta Fichte ikasteko aukera izan zuen, azken honen jarraitzaile eta defendatzaile kritiko bihurtuz. Kronologiarekiko, hurrengo datak aipa daitezke:


1. 1797, *Naturaren filosofiarako ideiak* argitaratu 22 urterekin.
2. 1798, Schellingek Fichte ordezkutzen du Jenako Unibertsitatean.
3. 1800, *Idealismo transzendental* lana argitaratu.
4. 1804, *Filosofía y Religión*. Aldaketa esanguratsua, bere filosofiaren *bigarren etapa*.

3.1. Lehen etapa, Fichteren alde eta kontra

Garai honen abiapuntua Fichteren filosofia objektuaren eta ez subjektuaren aldera egokitzea da, Spinozak egiten duen bezala.

Abiapuntua: Fichteren haritik eta kontra	
<u>Subjektua</u>	<u>Objektua</u>
Nia – Yo (das Ich)	<u>Ez-Nia</u> – No-yo (das Nicht-ich)
(Yo de Fichte ... F ^a trascendental/ crítica)	(Substancia de Spinoza ... F ^a dogmática)
Schelling	
<u>Espiritua</u> (= naturaleza invisible)	Naturaleza (= espíritu visible)
<u>Absolutoa</u> (aldi berean da ...)	
<u>trans-subjetiboa</u> →	→
←	← <u>trans-objetiboa</u>

Fichteren eta Schellingaren arteko desberdintasun nagusia ordena da: Fichtek Nia, gero ez-Nia, eta gero absolutua izendatuko du, eta Schellingek berriz, ez-Niari lehentasuna ematen dio. Onartuko du Niak bere burua autoafirmatzen duela, baina garaiko erromantizismoaren ideiak jarraituz, aurrejarriko du Nia *naturan* kokatzen dela lehendabizi. Fichteren filosofiari *trazsendental* etiketa jarriko dio, eta Spinozari *dogmatikoa*, bi muturrak bereiziz. Horrela, espiritua eta natura dena Absolutuaren baitan bateratuko du, muga zehatzik gabeko egitura baten baitan: ezin dugu subjektua objekturik gabe definitu, eta ezin dugu objekturik definitu subjekturik gabe. Horrela, bere filosofia garatuko du hiru pausutan:



1. Naturan soilik oinarritzen den filosofia *naturaren filosofia* izango da. Bertan, ekoizpenetik ekoizlerako saltoa emango du, azalduz nola naturak gizakieren forma hartzen duen. Natura formarik gabeko entitatea izango da, gizakiak zentzua emateko zain.
2. Subjektuan soilik oinarritzen den filosofia *trazsendentalak* ekoizletik ekoizpenerako saltoa egingo du, gizakiak naturari forma emateko duen gaiatsuna azaldu nahian. Zientziaren garapena azalduko da, gizakiak naturarekiko duen garrantzia.

3. *Identitatearen filosofia*, natura dena bateratzen duen printzipio horretan oinarritzen dena. Aurreko bi filosofiak pausuak izanda, hau Schelling-en helburu edo ondorioa da.

3.2. Bigarren etapa, 1804tik aurrera

Garai honetatik aurrera bere pentsamendua eraldatuko da, faktore pertsonal eta akademikoen ondorioz. 1804an Jenako Unibertsitatetik joan zen bertako irakaslea zen Schegel irakaslearen emaztearekin ezkondu ondoren, baina hau 1809an hil zen. Gainera, 1807an Hegelen lanak bereari garrantzia kenduko dio, eta honek ere, dimentsio pertsonalean eragingo dio. Garai honetan Boehmeren lanarekin harremanetan hasten da, mistizismoaren gaiari sartuz, eta horri, *Filosofia eta Religion* lana argitaratuko du, panteismotik teismorako saltoa emanez.

1831 urtean, Hegel hiltzen denean, bere aurkako gorroto eta inbidia dena kanporatuko du, bere *obsesioa* izango da. Arrazoi pertsonalak alde batera, bere filosofia kritikatu du abstraktuegia, logikoezia... izanagatik. Garai honetan erligioso mistiko baten alde egingo du:

WAS (zer da) (pentsamendua)	DASS (badela) (izatea)
Qué es ... (pronombre) Esencia Posibilidad Concepto	... que es (conjunción) Existencia Realidad Hecho
Filosofía negativa o racional	Filosofía positiva o religiosa

Bi filosofia hauek bereiziko ditu, berak bigarrena jarraitzen duela. Kritikatu du Hegel beti *was*-ean oinarritu dela, laborategiko filosofia perfektua egin duela baina ez dela izatean benetan oinarritu. Berak, beste alde batetik, denaren inguruan pentsatu du, Jainkoa eta natura erdigunetzat dituela.

4. Georg Wilhelm Friedrich Hegel (1770-1831)

Hegelek Schelling eta Hölderlinekin batera ikasi zuen Tubingeneko seminarioan, garai hartan unibertsitatearekin lotzen dena. Bera ere familia on batean jaio izan zen, bere aita funtzionarioa zela. 1801 eta 1806 urteen artean Jenan irakasle izan zen Schellingek lagunduta, eta 1807tik 1816ra Nürembergeko institutu batean zuzendari aritu zen. Garai honetan, *Fenomenologia* (1807) eta *Logikaren zientzia* (1812) argitaratu zituen. Bi urtez Heidelbergeko irakasle izan zen, eta azkenik, 1818tik 1831ra Berlinen aritu zen errektore gisa lanean, faktore politikoen eraginda. Azken etapa honetan, zuzenbidearen filosofia garatu zuen gehien bat. Hegelek konfidantza itsua izango du arrazoian, *noumenoa* arrazoia barnean sartu nahi zuen, hiperrrazionalismoa.

4.1. Hegelen filosofiaren gakoak

4.1.1. Teologiatik filosofiara.

Hegelen filosofiaren lehenengo gako garrantzitsua teologiatik filosofiarako jauzia da. Kontuan hartu behar da teologia zuzenenan kristautasunari lotzen badiogu ere, bere lehen definizioa Platonen eskutik jasotzen dugula, eta bere arabera, teologia natura jainkotiarraren ezagutza izango dela.

Hegelek *kristologia* egiten du: Kristo haragiztatutako Jainkoa da, transzendentea, imanentea eta infinitua den hori finitua bilakatzen da. Jainkoa eta Jesus, beraz, izaki bakar baten baitan bilduko dira, dena absolutua bilakatuko da. Hortik, Jainkoaren heriotza aldarrikatuko du Nietzschek baino lehen. Eskema hau bere filosofia sekularizatua garatzeko hartzen du, panteismo *logiko* batera iritsiz. Erligioaren interpretazio intelektual eta hiper-logikoa egiten du, gero kritikatuko zaiona.

4.1.2. Epistemologia eta metafisika lotzea

Bere asmoa filosofiaren bi fase historikoak bateratzea izango da, hau da, subjektuaren eta objektuaren filosofiak. Subjektuan soilik oinarritzen den filosofiak onartu beharko du gizakiak soilik itsuraz ezagutzen duela, eta objektuan oinarritzen

denak berriz, onartu behar du Egia ez dagoela gizakiaren ezagutzaren esparruan. Hau *konpontzeko*, Hegelek egia subjektuaren eta objektuaren erdian kokatuko du: gizakiaren egitura mentala eta errealitatearen egitura metafisikoa berdinak dira, hau da, gizakiaren baitako kategoriak eta printzipioak errealitatearekin bat egiten du.

4.1.3. Metodologia, dialektika

Hegelek bere proiektu filosofikoa aurrera eramateko dialektika hartzen du metodo gisa, historiaren eta intersubjektibitatearen garrantzia azpimarratzen duen heinean. Afirmazioaren eta negazioaren arteko dinamikan progresoa kokatuko du, eta horrela ulertuko du Egia bera, prozesu gisa. Esango du errealitatea eta kontzeptua ez direla inola ere rigidoak. Bere bi lan nagusiak metodo honen ondorioak izango dira, bi ibilbide edo norabide hartuz:

1. Behetik gora, *Espirituaren fenomenologia*.
2. Goitik behera, *Zientziaren logika*.

4.2. Hegelen filosofia berlingen, 1818tik aurrera

1818tik aurrera Berlingen irakasle gisa aritu zen, filosofia politikoaren arloan garatuz. Berrezarpenaren testuinguruan, Prusian iraultza bat emango den arriskuaren beldur, Berlingo Unibertsitateak usteko du Hegel pentsamendua egokia izango dela ikasle mugimenduak bideratzeko. Horrela, modu ez-zuzenean, Prusiako filosofo ofiziala bihurtuko da, Berrezarpenaren defentsa teorikoa egingo du Erregearen alde, baina bere dialektikaren bidez errebeldeen ikuspegiak ere onartuko ditu. Kontuan hartu behar da urte batzuk lehenago Napoleonen inguruan aritu izan zen, berarekiko miresmenaren inguruan, Prusian kode napoleonikoa ezartzearekiko eskerrak emanez. Napoleonek bezala, askatasunaren materializazio konkretua defendatuko du.

4.2.1. Zuzenbidearen filosofia

Garai honetan idatzitako lanik garrantzitsuena *Principios fundamentales de la filosofía del derecho* (1821) izango da. Bertan, defendatuko du zuzenbidea askatasun posiblearen eremua dela, zuzenbidea legea edo konstituzioa bezala ulertuta. Bere

helburua Estatuaren arrazionaltasuna demostratzea izango da, konkretuki Prusiar gobernuaren legimitatuz: “arrazionala dena erreala da, eta erreala dena arrazionala da”. Kontuan hartu behar da bere dialektikaren baitan Egia ez dela momentu bat baizik eta prozesu bat, eta beraz, bere pentsamenduaz baliatuz bere kontra ere egin daiteke: Konstituzio bat erreala eta arrazionala denez historian eman da modu konkretu baten, baina Egia ez denez momentu batean ematen modu desberdinean interpretatu daiteke.

4.2.2. Historiaren filosofia

Hemendik historiaren filosofia egitera pasatuko da, honen helburua askatasuna delaren tesia defendatuz. Hiru fase desberdintzen ditu: Orientea, Grezia eta Erroma, eta Modernitatea. Lehenengo fasean bat bakarrik zen libre, bigarrenean batzuk, eta Modernitatean denok. Askatasunaren antitesia egoismo indibiduala izango da, eta horretaz askatzeko askatasunaren sintesia edo materializazioa den Estatua beharko dugu.

4.2.3. Erlijioaren filosofia

Garai honetan ere erlijioaren interpretazio hiper-intelektual eta hiper-logikoa egingo du *Lecciones sobre la filosofía de la religión* lanean. Kristautasuna benetako erlijio arrazionalizatu gisa aurkeztu nahi du, Schleiermacherren mistizismoaren aurka. Azken honek erlijioa sentimenduekin lotuko du, txikitasunaren kontzientziarekin, eta Hegelek berriz, Egia aurkitzearekin. Berarentzako fedea absolutuaren eta kontzientziaren arteko harremanaren ziurtasuna izango da, guztiz logikoa eta arrazionala, bestela, *txakurra bera gizakia baino sinesdunagoa izango litzateke*. Historiarekin egin duen bezala, erlijioaren hiru fase bereiziko ditu: erlijio orientalak mistikoak izango dira, Judaismoa teleologikoa izango da, eta Kristautasuna berriz, ontologikoa. Bere kontra esan da Hegelek Kristautasunaren sekularizazioa egiten duela.

Hegel hil eta ia-ia jarraian Idealismoa bera hilko da, jendea nazkatuta egongo baita filosofia egiteko modu hiper-intelektual eta kuadrikulatuaz. Filosofia *ofiziala* izan zen horren aurkako tendentzia bat sortuko da, autore berrien baita idealisten eskutik. Horien artean Schopenhauer aipa daiteke, Kantera itzuli eta noumena borondatearekin berdinduko duena.

Marx bera ere Hegelekin elkarrizketan egongo da, bere progresuaren ideia onartuz baina izpiritua materiarekin ordezkatur. Nietzschek, bere aldetik, Jainkoaren heriotzaren ideia haratago garatuko du, irrazionalismoa aldarrikatur.

1. Sarrera: kontzeptua eta garapena

Erromantizismoaren oinarriko kontzeptua *Erroma* da, *romanire loqui* kontzeptutik datorrena. Kontzeptu honek Erromako Inperioaren testuinguruan kalean hitz egiten zen hizkuntzarekin lotzen da, *latine loqui*-ren aurkakoa, zeinetatik hizkuntza erromanikoak garatu ziren. Hizkuntza honen *kalekotasuna* aldarrikatzen duen korrontearen sorrerarekin lotuko da, akademizismotik at jendearen produkzio kulturalarekin.

Gure gai honen baitan, Erromantizismoak 1780 eta 1830 urteen arteko produkzio kulturalari erreferentzia egingo dio. Korronte hau ez da dealismoaren ondorengoa, baizik eta Ilustraziotik garatutako bi *bide* alternatiboetako bat. Erromantizismoa berez mugimendu literarioa da, errealitatearen aurpegi tragikoari garrantzia ematen dion eta arrazoiean fede gutxi duen mugimendua. Hortik filosofia erromantikoa jaiotzen da, ideia hauek jada Ilustrazioan zeuden marko teorikoan txertatuz, ez bere kontra, baina hori gainditzen. Mugimendu hau Frantzian emango da, tradizio absolutistaren aurka, eta Alemanian, Napoleonen aurka nazionalismo modura. Modu orokorrean, esan daiteke erromantizismoak askatasuna defendatzen duela, honen dimentsio politikotik haratago.

Erromantizismoaren gako nagusia irrazionaltasunaren defentsa izango da, Idealismoaren gehiegizko arrazionaltasunaren aurka, ideia honen kontra: *galdera denek dute erantzuna, eta ez badute, edo ez dira galdera edo etorkizunean erantzungo dira*. Ikuspegi honek defendatuko du erantzun oro arrazionalki argumentatu daitekeela, indukzioak eta dedukzioak Mundu osoa azaldu dezaketeela kontraesan gabe. Honen aurka, Erromantikoek balio erlatiboaren rola defendatuko dute, zientzietatik at, molde bakarraren ideiatik ihes eginez. Kontzeptuen bidez, hurrengo kontzeptuen arteko kontrastea izango da, kontuan artuta ez direla aurkakoak, baina Erromantizismoak eskema klasikoa zabaltzen duela ulermen osora, ez bakarrik ezagutza ziurrera:

Erromantizismoa	Arrazionalismo
Erlatiboa	Ziurra
Prozesua	Emaitza

Formazioa (bildung)	Hezkuntza
Multiformea, anitza	Uniformea
Ezkutukoa	Agerikoa
Protestantea	Katolikoa

Filosofia praktikoaren esparruan, Egia eta Ongiaren arteko lotura klasikoarekin apurtu nahiko dute, defendatuz gizakiak ezin duela filosofia aztertu kanpotik, dena erlatiboa dela norberaren kontestuarekiko.

1.1. Alemania

Alemania Erromantizismoaren jaioterria da, bertan eman baitzen Ilustraziotik Erromantizismorako lehen hastapenak. Kontuan hartu behar da Alemaniak historikoki Frantziarekiko izandako konplexua, Estatu txikiz osatutako herrialdea askoz ahulagoa zelako. Horrela, Erromantizismoa pentsamendu frantziarraren aurkako erreakzio gisa ulertu daiteke. Honen adibidea itxuraren balioa izango da, Herderrek kritikatzenduen. Erromantizismoaren hasiera Goetheren *Werter* (1774) antzezlanak kontsideratu izan da sinbolikoki, Frantziar literaturaren aurka Greziako eta Erromako ereduera buelta proposatzen duelako. Ikusiko ditugun autore garrantzitsuenak hurrengoak dira:

1. Herder. Itxuren aurka barneko garapen maieutikoa.
2. Scheleiermacher. Erlijioaren mistizismoa.
3. Wilhelm Von Humboldt. Hizkuntza eta hezkuntza.

1.2. Ingalaterra eta Frantzia

Ingalaterran garatzen den Erromantizismoa maila handi batean literarioagoa da. Honen oinarriaren oinarrian Hume aipa dezakegu, Ilustrazioaren aurkako eszeptizismo akademikoa defendatzen baitzuen. Aipatu daitezkeen autoreen artean Mary Shelley, Lord Byron, William Wordsworth... aipa daitezke, literaturaren bidez irrazionaltasunaren defentsa egiten zutenak. Frantizan, beste alde batetik, Erromantizismo berantiarra emango da

Napoleonen Errestauraziorarte. Garai honetatik Victor Hugu aipa daiteke ia salbuespen gisa, berak defendatu baitzuen *erromantizismoa liberalismoa dela literaturan*.

2. Herder (1744-1803)

Herder Möhrungen jaio zen, gaur egungo Polonian eta bere Prusian. Kanten ikaslea izan zen honek bere obra famatuak argitaratu baino lehen, eta horrela, Hume eta Rousseuren lanak ezagutzeko aukera izan zuen. Hamannen laguna izan zen, biak Kantekiko kritikoak izanik, gizakia gehiegi abstraitzeagatik. Aurretik ikusitako autoreak ez bezala, Herder ez da irakaslea izango, baizik eta apaitz protestante eta funtzionarioa. Kontuan hartu behar da unibertsitate baten barnean lan egin ez izanak bere lana sistemizatzeko behar eza suposatu ziola, eta beraz, sutsuki defendatuko duela sistema batek ezin izango duela inoiz gizakiaren esperientziaren osotasuna azalduko.

2.1. Hizkuntzaren jatorriari buruzko saiakera, 1771

Garai honetan hizkuntzaren jatorriari buruzko eztabaida nahiko orokorra zen, konkretuki, gizakiaren hizkuntzaren ezaugarritzea animaliekiko. Herderrek ezango du gizakiak berez hizkuntza eta penstamendua dituela, jatorriz linguistikoak eta pentsalariak garela, eta gizakia soilik horrela irudikatu daitekeela. Hizkuntza ez da eranskin gisa ulertu behar, baizik eta gizakiaren esentziaren lehenengo ezaugarria. Kontuan izanda Herder literatoa dela, pere pasioa literatura izan zela urte askotan zehar, eta beraz, hizkuntzaren ideiatik abiatuz, konturatuko da hizkuntza kontsideratu behar dela lehendabiziz. Hizkuntzaren analisiari dagokionez, kontuan hartu beharreko hiru dimentsio bereiziko ditu: x, hizketa ekintza indibidual gisa, eta hizkuntza historikoak edo naturalak.

Kritikatuko du modernitatean eta Ilustrazioan toki guztietako literatura irizpide bakar baten bidez ebaluatu nahi izan dela, kontuan hartu gabe herri baten hizkuntza bere izaerarekin lotzen dela erabat. Hortik abiatuta, kulturaren defentsa egingo du, herriena, ez ikuspegi politiko batetatik, baizik eta izaeraren defentsatik: herri denen nazionalista izango da. Pentsamendu teorikoetatik eta kontzeptualetatik baztertuz, herri bakoitzak bere izaera bere modura garatzeko duen eskubidea defendatuko du, gero bere filosofiaren historian sakonduko duena.

1. Friedrich Scheleiermacher (1768-1834)

Scheleiermacher Breslabian jaiotako teologoa izan zen, gaur egungo Polonian eta bere garaiko Prusian. Apaiz protestantea izan zen, mundu akademikoan lanean aritu bazen ere. Hallen ikasi zuen, eta Berlingo Unibertsitateko Teologia fakultateko irakaslea izan zen hil arte. Hegelen etsai gisa ulertu daiteke kontestu honetan, erligioari buruzko kontzepzio antagonikoen ondorioz. Bere lan nagusiak erligioaren filosofiaren eta hermeneutikaren esparruan garatzen dira.

3.1. Erligioaren filosofia

Orokorrean, esan daiteke Scheleiermacherrentzako erligioa sentimendu bat izango da, txikitasunaren onarpen bat, 1799an argitaratutako diskurtsoen bilduman azaltzen duen bezala. Subjektuaren eta objektuaren arteko bereizketa klasikoaren eskema jarraituz, autore honek pentsamenduaren eta izatearen arteko bereizketa proposatuko du. Ezagutza errealtatearekin lotzerakoan, erantzun erligioso bat proposatuko du, argudiaketa sentimentalean oinarritzen dena. Bere ustez, ezinezkoa izango da bi dimentsio hauek kontzpetualki bateratzea, eta beraz, gure limitazioen onarpenak lotuko du gako hau.

Erligioa, beraz, infinituaren aurrean menpekoak izatearen sentimendua izango da, txikitasuna sentitzearena. Argi eta garbi utziko du erligioa ez dela kontu metafisiko edo etikoa, teologia liberal edo sinboliko bat proposatuz planteamendu dogmatikoen aurrean. Bere proposamena humanista izango da guztiz, gizakiaren konkrezioari erreparatuz eta Jainkoari garrantzia kenduz. Erligioaren kontzepzio zabal honen baitan, Jainkorik gabeko erligioa, ateismoa, erligio aniztasuna... onartuko ditu, Unibertsoan norberak duen posizioaren kontzientzia baita erligiotasunaren oinarria.

3.2. Hermeneutika filosofikoa

Hermeneutika testuen eta mezuen interpretazioaren filosofia da, Jainko mezularia den Hermes jatorria duena. Kontuan hartu behar da hermenutika erromantiko edo historizistak

ez dituela soilik testuak aztertzen, hizuntzaren azalera eta forma guztietan ikusten duela pentsamendu filosofikoaren beharra. Filosofia alemandarraren testuinguruan garrantzi handiko esparrua da, Heidegger eta eta Gadamer bezalako autoreekin. Lehenengo honek esango du filosofia, eta beraz giza kontu oro, hermeneutikara murriztu daitezkeela. Gadamerrek, modu berdintsu batean, aitortiko du dena interpretazioa dela eta honen arazoak gehien bat giza zientzietan ematen direla, ez hainbeste natur zientzietan. Orokorrean, defendatuko dute *egitazpenik ez dagoela, bakarrik interpretazioak*. Testuen interpretazioaren auzia betidanikoa da, idazketa bera asmatu zenetikoa, baina Scheleirmacherrek berak lehen pertsonan bizi izan zuen auzi honek suposatu dezakeen ezatabaida, Platonek 2000 urte lehenago idatzitako testuak itzultzerakoan. Bereizi behar dira:

1. *Erretorika*. Zer esatetik nola esatera, ondo hitz egitearen zientzia. Garrantzitsua konbentzitzeko, arlo diskurtsiboan gehien bat.
2. *Hermeneutika*. Nola esanetik zer esanera, itxura gainditzeko saiakera hizkuntzaren bidezko mezua interpretazeko. Adierazpen baten esanahia du aztergai, berreraiketa prozesu baten bidez. Autore baten lana autore horrek berak baino hobeto ulertzea izango da helburua.

Scheleirmacherrek bi interpretazio esparru bereiziko ditu: gramatika eta psikologikoa. Onartuko du izkuntza bietan dagoela, batak esaten denari egiten diolako erreferentzia, eta besteak esan nahi denari. Interpretzea, beraz, ulertzea izango da, beti subjektiboki. Interpretazio kronologikoaren aurkakoa izango da, hau da, ez du onartu ezagutza subjektiboa lortzeko lehenengo hizkuntza objektiboki aztertu behar denik. Honen aurka zirkulu hermeneutikoa proposatuko du, osotasunaren eta atalaren edo banakoaren arteko etengabeko ziklo gisa: osotasuna ulertzeko banakoak aztertu behar dira, eta banakoak ulertzeko, osotasuna.

2. Wilhelm Von HUmboldt (1767-1835)

Humboldt pertsonai oso prestigioatua da Alemaniako historian zehar gaur egun arte. Humboldt 1801 urtean, bere bizitzaren erdian hain zehazki, Euskal Herrian egon zen. Bere bidai honi garrantzi biografikoa eman zaio modu orokortuan, eta gure ikuspuntutik aztertuta,

bere pentsamendua bi etapatan banatzeko erabili daiteke. Humboldt Postdamen jaio zen, Branderburgen, eta Tegelen hil zen. Berak eta bere anaiak hezkuntza pribilegiatua jaso zuten, familia on baten jaio izan zirelako, guztiz aberatsak eta ospetsuak ez ziren arren. Berak zuzenbidea ikasi zuen Jenan, baina bere jarduera profesionala *pentsalari, politiko eta hizkuntzalari* bezala ulertu behar da.

1. Pentsalari gisa gizakia izango du beti aztergai, izan daitekeen horren baitan ulertuta, eta garaiko filosofia idealistaren aurka dagoenez, filosofiaren etiketa ukatuko du.
2. Politikari gisa hezkuntza publikoaren defentsa egin zuen, denok ikasteko eskubidearen alde.
3. Hizkuntzalari gisa hizkuntzaren filosofia eta zientzia garatu zituen. Gai honetan euskal esperientziak garrantzi handia du, hizkuntza eta antropologiaren arteko lotura teorikoa garatuko baitu hortik abiatuta.

2.1. Antropologia filosofikoa

Bere antropologiaren gako nagusiak humanismoa eta Bildug-a dira, hau da, formazioa. Gizabanakoa hartuko du antropologiaren aztergai gisa, Kanten kontra giza purutasunaren azterketa eginez. Esango du gizakia ezin dela entelekeia gisa ulertu, indibidualtasunean kontsideratu behar dela beti abstrakzioa alde batera utzita. Historizismoaren aldekoa izanik, baldintza espazio-tenporalen garrantzia azpimarratuko du. Horrela, gizakia ezagutzetik hau humanizatzearen aldeko pausua emango du, *zergatik ezagutu* galderari erantzunez *zer ezagutu* galdetu beharrean. Hortik gizakiaren gaitasunak eta bere pontentziala identifikatu nahiko ditu, filosofiaren izaera teleologikoa garatuz: gizakiak helburuak ditu eta haiei begiratu behar zaie. Bere antropologia filosofikoaren metodoa konparazioa izango da, patroi finkorik gabekoa. Bere helburua ez da ezagutza finko eta absolutu bat eskuratzea, baizik eta unean-unean ulertu behar diren esplikazioen bilduma. Imaginazioari garrantzia ematen dio, Kanten ildoari jarraituz, filosofia edo idealak eta enpiria lotzeko ezinbesteko gaitasuna kontsideratzen duelako.

2.1.1. Euskal Herrirako bidaia

Estandarrak ez ziren kulturak ezagutu nahian, Humboldt Euskal Herrira hurbildu zen gizadiaren manifestazio ezberdinak aztertzeko asmoz. Behin Espainian egonda, gure lurraldeak faszinazioa esnatu zuen autore alemendarrarengan eta berriro bueltatu zen. Bigarren bidai honen ondoren soilik gure kulturaren oinarritzen den lan monografiko bat eratzeko asmoa izan zuen, aurrera eraman ez arren. Hala ere, bere bidai oharren bidez jakin izan dugu gai etnografikoen (fisionomia, herri kultura, historia politikoa...) eta etimologikoen (euskal hizkuntza) inguruko interesa izan zuela. Euskaldunak muga politikorik gabe aztertzerakoan bi ideia nagusi azpimarratu daitezke.

1. Euskal nazioa euskal hizkuntza komunitate gisa ulertzen zuela, nazioa kontzeptu linguistiko, kultural eta antropologiko gisa ulertuz. Nazioa ez da soilik dimentsio politikoan ematen den kontzeptua, kasu honetan, *euskal nazioa* euskaraz hitz egiten duen komunitatea izango da.
2. Euskaldunei buruzko lanetan *die Basken* esan beharrean *die Vasken* esango du, euskaldun denak bilduko dituen kontzeptu bat eratzeko helburuarekin. Ikusiko erabiltzen diren terminoak partzialak direla: Biscayen hegoalderako eta Basquen iparralderako.

2.2. Hizkuntzaren filosofia

Euskal Herrira egindako bisitaren ondoren hizkuntzaren teoria antropologikoa egiten hasiko da. Hizkuntza interesgune antropologiko bezala aztertuko du pentsamenduaren biraketa linguistikotik abiatuz. Gizakia aztertzeko hizkuntza esentziala izango da, ez modu abstraktuan, baizik eta hizkuntza bakoitzaren konkrezioan. Ikuspegi honetan euskerak garrantzi handia izango du, lehen aldiz topatuko delako idatzia ez den baina bizirik dagoen hizkuntza batekin, eta ulertuko du hizkuntzat gizakia gizaki egiten duela literaturaren beharrik gabe. Garapen historikoari dagokionez, hizkuntzalaritza politikarekin konbinatuko du 1800tik 1820ra, eta soilik modu teknikoago batean 1835 arte.

- 2.2.1. *Hizkuntzaren aspektu filosofikoa*. Filosofikoki hitz eginez hizkuntzaren jatorrian, eta beraz, gizakiaren jatorrian, oinarrituko da. Gizakiaren eta hizkuntzaren

esentziak berdinduko ditu, baita bere gaitasun soziala eta lingusitikoa ere. Ezin gara esentziara eta beraz jatorrira heldu, baina *ergon energeia* bereizketaren bidez eta pentsamenduaren bidez hurbildu gaitezke. Beste alde batetik, hizkuntzari balio filosofiko handia eskainiko dio gizakiaren eta munduaren arteko bitartekaria den heinean: hizkuntz komunitatea munduaren ikuskera linguistikoa izango da.

- 2.2.3. *Hizkuntzaren aspektu antropologikoa.* Antropologikoki hizkuntzak izaera formatiboa izango du, gizakion garapen zientifikoa, intelektuala, etikoa, politikoa...ahalbidetzen duelako. Hizkuntza, gainera, soziala izango da, ekintza eta ulermena aurrera eramateko ezinbestekoa delako.